



8. liburua

Trantsizio Soziala **III.**

Kohesio soziala
eta nazioarteko
elkartasuna

Lehendakaritzako
Trantsizio Sozialaren
eta 2030 Agendaren
Idazkaritza Nagusiak,
2020-2024
Legegintzaldian,
sortutako
dokumentuen
Bilduma

- 1. liburua.** 2030 Agenda I. Dinamizazioa
- 2. liburua.** 2030 Agenda II. Dibulgazioa
- 3. liburua.** 2030 Agenda III. Gobernantza
- 4. liburua.** 2030 Agenda IV. Jarraipena eta ebaluazioa
- 5. liburua.** 2030 Agenda V. Ekarpena 16. eta "18". GJHei
- 6. liburua.** Trantsizio Soziala I. Erronka demografikoa
- 7. liburua.** Trantsizio Soziala II. Gazteria
- 8. liburua.** Trantsizio Soziala III. Kohesio soziala eta nazioarteko elkartasuna
- 9. liburua.** Trantsizio Soziala IV. Pandemia





8. liburua

Trantsizio Soziala **III.** Gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna

Aurkibidea

Bilduma honen aurkezpen orokorra.

Liburu honen aurkezpena.

1. dokumentua. Euskarri Estrategia: (I) Erakundeen arteko Adierazpena, (II) Lehentasunen agenda berregokitzea, eta (III) 2023ko Memoria.

2. dokumentua. Komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Batzordearen 2023-2026 Programa; eta ADOS Batzordearen VI. lan-agenda.

3. dokumentua. Uztartu. Erradikalizazio biolentoa prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-programa (bigarren pilotajea).

4. dokumentua. Nazioarteko beste elkartasun-jarduera batzuen koordinazioari eta dinamizazioari buruzko memoria.

Oharren eranskina. Beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekak.

- 1. liburua.** 2030 Agenda I. Dinamizazioa
- 2. liburua.** 2030 Agenda II. Dibulgazioa
- 3. liburua.** 2030 Agenda III. Gobernantza
- 4. liburua.** 2030 Agenda IV. Jarraipena eta ebaluazioa
- 5. liburua.** 2030 Agenda V. Ekarpena 16. eta "18". GJHei
- 6. liburua.** Trantsizio Soziala I. Erronka demografikoa
- 7. liburua.** Trantsizio Soziala II. Gazteria
- 8. liburua.** Trantsizio Soziala III. Gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna
- 9. liburua.** Trantsizio Soziala IV. Pandemia

Bilduma honen aurkezpen orokorra

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldia amaitzen zutenak, 2020ko uztailaren 12an egin ziren, pandemia hasi eta bost hilabetera. Irailaren 5ean, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak bere kargua zin egin zuen Gernikako Arbolaren aurrean, eta hiru egun geroago bildu zen, lehenengo aldiz, Gobernu Kontseilu berria.

Lehendakariak gobernu-egiturari dagokionez hartutako lehen erabakietako bat izan zen Lehendakari-tzan Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea. Egitura Organikoari buruzko Dekretuak hiru jarduera-eremu handi ezarri zituen idazkaritza berri honetan: 2030 Agenda, Erronka Demografikoa eta Trantsizio Soziala deitu izan denaren beste eremu garrantzitsu batzuk.

Lehenik eta behin, beraz, 2030 Agenda, eta, zehazki, Euskadik Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen konpromisoa dinamizatzea, koordinatzea eta bultzatzea sailen artean, erakundeen artean eta gizarte mailan. Bigarrenik, erronka demografikoa eta, zehatzago, horri erantzuteko sailen arteko estrategia bat lantzea eta bultzatzea. Eta hirugarrenik, gure trantsizio sozialei eragiten dieten beste erronka garrantzitsu batzuen aurreko erantzunak koordinatzea eta dinamizatzea, hala nola kulturen arteko eta migrazioen arteko bizikidetzeta eta kohesioa, eta, une hartan, pandemiaren eraginari arreta berezia eskainiz.

Une hartan zuen izaera totalizatzailea zela eta, aipamen berezia merezi du 2020ko martxotik 2022ko otsailera bitartean COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizi izan zen egoerak. Larrialdi-egoeraren deklarazioaren ondorioz, 2020ko martxotik, Lehendakariak bere gain hartu zuen LABIren (Larrialdiei Aurregiteko Bidea - Euskadiko Babes Zibileko Plana) zuzendaritza bakarra eta koordinazioa.

Horren ondorioz, sailen arteko eta erakundeen arteko erantzuna zuzentzeko eta koordinatzeko zereginak Lehendakaritzan kokatu ziren, logikoa denez, Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lan-kidetzeta estuan. Horiei zegokien erantzuna osasunaren eta osasun publikoaren ikuspegitik bideratzea, euskal osasun-sistema osoaren tresnekin, bai eta funtsezko zerbitzuak emateko ardura zuten gainerako sailekin ere.

Lehendakaritzaren erantzukizun hori babesteko, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak bere gain hartu zuen, 2020ko irailetik 2021eko urrira bitartean, LABIren bi mahaien (tekniko-zientifikoa eta erakunde artekoa) eta Bizi Berri II, III eta IV Planen koordinazio operatiboaren lana. Dokumentu horiek LABIren jarduera-esparru izan ziren, eta Eusko Jaurlaritzaren lan-tresna izan ziren pandemiaren bilakaeraren jarraipena egiteko, prebentzio-neurriak prestatzeko (neurri horiek aplikatzeak gizarte osoari eragiten zion) eta herritarren arteko komunikaziorako eta gardentasunerako.

Idazkaritza honek Legegintzaldi honetan egin duen ibilbidean eragina izan duen beste gertaera bat Lehendakariak 2022ko irailaren 22an Politika Orokorraren Osoko Bilkuran egindako iragarpenera izan zen. Une hartatik aurrera, Gazteria Zuzendaritza, ordura arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politi-

ketako Sailaren barruan zegoena, Lehendakartzaren egiturari atxikita geratuko zen, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren barruan.

Hilabete batzuk lehenago, martxoaren 10ean, Gazteen Euskal Legea onartu zen, eta, ekainaren 21ean, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia. Berregituratze horren helburua izan zen gazteriari, emantzipazioari eta erronka demografikoari buruzko politiken sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, zeharkako ikuspegi batekin, eta lehentasun handiena emanez gazte-politika publikoei.

Bilduma honek ibilbide honi erantzuten dio. Bederatzi liburuen egitura honako hau da:

- 1. liburua.** 2030 Agenda **I. Dinamizazioa.**
- 2. liburua.** 2030 Agenda **II. Dibulgazioa.**
- 3. liburua.** 2030 Agenda **III. Gobernantza.**
- 4. liburua.** 2030 Agenda **IV. Jarraipena eta ebaluazioa.**
- 5. liburua.** 2030 Agenda **V. Ekarpena 16. (bakea) eta "18". (kultura) GJHei.**
- 6. liburua.** Trantsizio Soziala **I. Erronka demografikoa.**
- 7. liburua.** Trantsizio Soziala **II. Gazteria.**
- 8. liburua.** Trantsizio Soziala **III. Gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna.**
- 9. liburua.** Trantsizio Soziala **IV. Pandemia.**

Egiazta daitekeenez, lehenengo bostak 2030 Agendaren esparrukoak dira, eta hurrengo lauek edukia ematen diote trantsizio sozialaren kontzeptuari, lau ikuspegitatik: erronka demografikoa, gazteria, kohesio soziala eta pandemia.

Logikoa denez, lau urtean zehar, gobernuko edozein arloren jarduerarekin lotutako dokumentu-ekoizpena oso zabala da. Honelako bilduma bat osatze aldera, beharrezkoa izan da akotazioren bat ezartzea, luze-zabalerari dagokionez arrazoizkoa denaren mugak ez gainditzeko. Bi irizpide jarraitu dira: lehenik, Idazkaritzak sortutako dokumentuak soilik sartzea, idazketan parte-hartze zuzena izandakoak; eta, bigarrenik, liburu bakoitzari oharren eranskin bat txertatzea, beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekekin, Idazkaritzak zuzenean egin ez baditu ere, beren jarduerarekin zerikusia dutenak.

Bestalde, adierazi behar da jarduketa-eremu bakoitzak urte arteko plangintza estrategikoko dokumentu bat izan duela, eta horrek kudeaketa eta bultzada markatu dituela:

- 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa, 2021eko ekainaren 29an onartua.
- Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia, 2022ko ekainaren 21ean onartua.

- Bizi Berri II., III. eta IV. Planak, 2020ko urrian, 2021eko otsailean eta 2021eko uztailean onartuak, pandemiaren bilakaerari egokitutako erantzun-tresna gisa.
- Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia, 2023ko martxoaren 21ean onartua.

Horri guztiari, trantsizio sozialaren eremuan, ADOS Batzordearen urteko edo urte arteko kudeaketa-planak, Euskarri Estrategia eta Uztartu Programa gehitu behar zaizkio. Dokumentu horiek guztiek segimendu-, balantze- edo ebaluazio-memoriak dituzte, urtekoak zein Legegintzaldikoak, eta bilduma honetako liburu bakoitzaren abiapuntua edo bizkarrezurra dira. Garrantzitsua da hori aipatzea; izan ere, horrela, lan-plan bakoitzaren egituraketan, sistematizazioan eta ebaluazioan oinarritutako kudeaketa-eredu bat ezarri da, plana sortu den aldira egokitua.

Testuinguruari buruzko azken ohar bat nabarmendu behar da. Bilduma hau urte edo hamarkada batzuk barru irakurriko, erreparatuko edo soilik gainbegiratuko balitz, beharrezkoa litzateke 2020tik 2024ra bitartean bizi izan den une historikoaren erreferentzia izatea, interpretazio zehatzagoa egiteko. Lau urte hauetan inoiz ez bezalako aldia bizi izan zen garai historiko honetako belaunaldientzat. Krisi sakonen eta globalen segida batek modu negatiboan baldintzatu zuen pertsona guztien eta herrialde guztien bizitza leku guztietan.

2008an sortutako ekonomia- eta finantza-krisi luze globalaren ondorioei aurre egin behar izan genien. 2020ko martxotik 2022ko otsailera, pandemia baten erdian bizi izan ginen, konfinamendu-aldi luzeekin eta gizarte-bizitzaren funtzionamendu normalaren murrizketa handiekin. Euskadin osasun-larrialdia amaitu eta bi astera, 2022ko otsailaren 24an, Errusiako armadak alde bakarreko inbasio militarra hasi zuen Ukrainan. Ondorio humanitario onartezinez gain, inflazio-igoera bat eragin zuen, eta horrek eragina izan zuen munduko garraioan, elikagaietan, energian eta erregaietan edo industriarako horniduretan.

2023ko urriaren 7an, Hamasek eraso terrorista bat eragin zuen Israelgo herritar zibilen aurka: 1.200 hildako eta 250 pertsona inguru bahitu zituen. Une horretatik aurrera, Israelgo armadaren erantzunak, gerra-bitartekoak erabiliz, milaka eta milaka hildako eragin ditu Gazan, gehienak biztanleria zibila, emakumeak eta adingabeak. Ziurgabetasun geostrategikoa eta nazioarteko ezegonkortasuna indartu egin ziren.

Azken batean, horiek dira bilduma honek 2020-2024 aldian islatzen duen jardueraren testuingurua deskribatzen duten salbuespenezko inguruabarrak eta baldintza kaltegarriak.

Liburu honen aurkezpena

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia Lehendakartzari atxikitzeak sailarteko, erakundearteko eta gizarteko koordinazio-izaera espezifikoa ematen die haren funtzioei. Hori horrela izan da, aurreko liburuetan ikusi ahal izan den bezala, 2030 Agendaren edo Erronka Demografikoaren arloan, baina baita "Trantsizio Soziala deitu izan denaren beste eremu garrantzitsu batzuetan" ere, Egitura Organikoaren Dekretuan adierazten zen bezala.

Liburu honetan jasotzen diren dokumentuek Idazkaritza honek trantsizio sozialeko lehentasunezko eremuetan egin duen sailen arteko eta erakundeen eta gizartearen jarduera islatzen dute, hala nola egoera zaurgarrian dauden adingabeen eta gazteen (bertakoak edo migratzaileak) gizarteratzea eta laneratzea, kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzeta, erradikalizazio biolentoaren prebentzioa, edo nazioarteko elkartasunaren eta deialdi humanitarioen beharrei emandako erantzunak.

· **1. dokumentua**, "Euskarri Estrategia", bat dator Gobernu Programaren 90. konpromisoaren 2. ekimenarekin. 2018an sortutako sailen arteko eta erakundeen arteko lanaren bilakaera islatzen du, hasiera batean familia-erreferenterik gabeko adingabe migratzaileen etorreraren progresio esponenzialari erantzuteko. Pandemiaren garaian eta ondoren, estrategia egoera berrira egokitu behar izan zen. Dokumentu honetan elkarri lotutako hiru testu daude: (I) "Erakundearteko Euskarri Adierazpena", 2021eko ekainekoa; (II) "Euskarri Estrategia testuinguru berrira berregokitzeko proposamena", 2022ko uztailekoa; eta (III) "2023 memoria eta 2024ko lehentasunen agenda", 2024ko otsailekoa.

· **2. dokumentuak** "Komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Batzordearen 2023-2026 programa" jasotzen du, 2023ko apirilaren 4an aurkeztu zena Gobernu Kontseiluan. Bere "VI. Lan Agenda" ere jasotzen du, 2024ko urtarrilean onartua. Bat dator Gobernu Programaren 103. Konpromisoaren 5. ekimenarekin. ADOS Batzordea kide anitzeko organoa da, euskal instituzioek Euskadiko komunitate islamikoekiko harremanetan dituzten politika publikoetan parte hartzeko, lankidetzan aritzeko eta aholkuak emateko. ADOS Batzordean Eusko Jaurjaritza, foru-aldundiak eta EUDEL daude ordezkatuta, baita Euskadiko komunitate islamikoetako kideen kopuru bera ere. 2018an jaiotzen. Harrezkero, 26 bilera egin ditu guztira.

3. dokumentua, “Uztartu. Erradikalizazio biolentoa prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-programa (bigarren pilotajea)”, bat dator Gobernu Programaren 103. Konpromisoaren 6. ekimenarekin. Eduki didaktikoa 30 segundoko bost iragarkiren ingurukoa da. Horretan oinarrituta, programak film dokumental bat garatu du. Protagonistak 16 gazte dira, eta iragarki horien edukari buruz hitz egiten dute 11 minutuko bost kapitulutan. Uztartu Programaren lehen pilotajea 2020an egin zen, pandemiak baldintzatuta, 6 eta 10 gazte arteko 14 taldetan. Talde horiek, ordubeteko bost saiotan, dokumentalaren bost kapituluetak bakoitzaren edukari buruz hausnartu behar zuten. Legegintzaldiaren amaieran, programaren bigarren pilotajea bultzatzen ari da, eta horren planteamendua jasotzen du dokumentu honek.

4. dokumentua “Nazioarteko beste elkartasun-jarduera batzuen koordinazioari eta dinamizazioari buruzko memoria” da. Legegintzaldi honetan, ustekabeko eta eragin humanitario larriko inguruabarrek eragin zuten Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak haietzako erantzuna bultzatzeko eginkizunak bere gain hartzea. Laugarren dokumentu honek hiru zati dituen memoria bat eskaintzen du: (I) txertaketa global eta solidarioaren beharrari erantzutea; (II) Ukrainako lekualdatutako pertsonei harrera egitea; eta (III) Gazan sortutako larrialdi humanitarioari laguntzea. Gerora sortutako jarduera izan arren, jarduketa horiek guztiek Gobernu Programaren 140. konpromisoaren 4. ekimenari edukia ematen diote.

Bildumaren liburu honetan, gainera, **Oharren eranskin** bat erantsi da, beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekak dituen.

Liburu honek jasotzen dituen dokumentuek islatzen duten jarduera-ildoak agerian uzten dute Euskadi bezalako herrialde baten barneko gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna txanpon beraren bi aldeak direla, eta modu osagarrian jarduten dutela mundu hobe baten tokiko eta munduko eraikuntzan.

1. dokumentua

Euskarri Estrategia:

(I) Erakundeen arteko

Adierazpena,

(II) Lehentasunen

agenda berregokitzea,

eta (III) 2023ko

Memoria

Euskarri Erakundearteko Adierazpena

Zaurgarritasun-egoeran
dauden adingabeak eta
gazteak gizarteratzeko
eta laneratzeko estrategia
partekatua

Zioen azalpena

Tutoretzapeko adingabeen eta tutoretzapean egondako gazteen zaugarritasunarekin lotutako arazoak herri-erronka dira, eta, gutxienez, lehentasunezko arreta eskatzen duten bi alderdi dituzte.

Lehenik eta behin, erronka etikoa dira orainari lotutakoa. Adinagatik helduaroko berezko autonomia-baliabideak ez dituzten pertsonen eragiten dien errealitatea da. Gainera, hainbat inguruabar pertsonalek, familiarrek edo lurraldekoek eragin dute bizitzako etapa horretan beren gizarte-, familia- eta hezkuntza-ingurunearen berezko laguntzarik gabe jardutea. Babesgabetasunak eta sufrimenduak deskribatzen dute errealitate hori. Bere bizitzako egun bakoitzean bizi izandako sufrimendu bat. Errealitate horri erantzutea interpelazio etiko eta berehalakoa da.

Bigarrenik, herri-erronka hori berdintasunaren eta etorkizunaren erronka ere bada. Zaugarritasun-egoeran dauden adingabeek eta gazteek pairatzen duten oraingo sufrimendu hori ziurgabetasun eta bazterketa-arrisku gisa proiektatzen da etorkizunera ere. Politika publikoen agindu demokratiko eta saihestezina da etengabe jardutea berdintasun-baldintza sozialak sortzeko. Pertsona horien kasuan, gizarteratzeko eta laneratzeko baldintzak sortzearen parekoa da. Erronka hori ekitatezkoa eta etorkizunekoa da, eta adingabe eta gazte horiei nahiz gizarte osoari eta haien aurrerabideari eragiten die.

COVID-19k zailtasunak areagotu ditu eta egoera ahulenean daudenentzako desberdintasun-arrailak handitu ditu. Hamabost hilabete baino gehiagoko pandemiak erakusten du eragin handiagoa duela pertsona, familia eta talde ahulenetan. Seguru asko, zaugarritasun handieneko testuinguruetakoa bat familiarik gabeko haurrei eta bakarrik dauden gazte migratzaileei eragiten diena da.

Azken batean, giza duintasuna eta bizikidetzaren bezalako gizarte demokratiko baterako hain estrategikoak diren balioak defendatu eta sustatu nahian gabiltza, ahulezia-egoeran dauden adingabeen eta gazteen egungo errealitatean islatuta eta pertsonalizatuta.

Azken urteotan, euskal erakundeek modu koordinatuan lan egin dugu arlo horretan. Une honetan, erakundearteko lan-dokumentu bat partekatu eta aurkeztuko dugu, zaugarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko estrategia eta lehentasunen agenda zehazten dituen. Dokumentu honen izenburua "*Euskari estrategia. Bizi-proiektu autonomo baterako sostengu-puntuak, betebeharren eta eskubideen kontratu baten bidez*".

Tresna hau elkarlanerako topagunea da. Euskal erakundeek garatu nahi dugun ibilbide-orria da. Ezaugarri nagusiak honako puntu hauetan laburbiltzen dira:

- Adingabeen eta 21 urtera arteko gazteen problematikari heltzen dio, baldin eta egoera ahulean badaude continuum gisa eta osotasunean eta etenik gabe heltzen badiote. Era berean, bertakoentzat eta atzeritarrentzat proiektatzen da.

- Eskubide eta betebeharren filosofia bat pertsonalizatzean oinarritzen da. Erantzukizun-kontratuaren figura erabiltzen du; aurrekontratu bat adingabeen kasuan eta kontratu bat gazteen kasuan. Hitzarmen bat, azken batean, alde bakoitzak bere gain hartzen dituen helburuak eta konpromisoak ezarriko dituen. Adingabeek eta gazteek bizitza aurrera ateratzeko arduraz borrokatzeko konpromisoa hartzen dute; erakundeek hori posible egiteko sostengu-puntuak eskaintzeko konpromisoa hartzen dute.

- Tutoretzapeko adingabeen kasuan, sostengu-puntu estrategiko horiek hiru kontzeptutan definitzen dira: *Etxea*, *Orientazioa* eta *Prestakuntza*. Tutoretzapean egondako gazteen kasuan, hauek dira sostengu-puntu estrategikoak: *Gizarteratzea eta Laneratzea*, *Etxebizitza* eta *Bizi-laguntza*. Helburu nuklearra bizitza-autonomo proiektu baten alde egitea da.

- Estrategia hori begirada paternalistatik zein edozein espiritu biktimistatik urruntzen da. Mezu hezitzaile nagusia hau da: bizitzan aurrera ateratzeko, gogor lan egin behar dela. Hori egin ahal izateko, beharrezkoa da sostengu-puntuak izatea. Oinarritzko tresnak eta sostengu-puntuak eskaintzearen eta erresilientzia bultzatzearen alde egiten du, hau da, pertsona bakoitzak egoera traumatikoak gainditzeko duen gaitasuna. Arkimedes parafraseatuz eta egokituz: "Emazkidazu sostengu-puntuak, eta aurrera aterako dut nire bizitza".

- Hiru binomiok definitzen dituzte estrategia horren premisak:

- erantzukizuna eta konpromisoa, betebeharrei eta eskubideei dagokienez.
- autonomiarako sostengu-puntuak, lehentasunez, enplegurako prestakuntza.
- laguntza pertsonalizatua eta erantzukizun gero eta handiagoa.

Kontzeptuzko esparru horretan, *Euskarri Estrategiak* 12 lehentasuneko programa bat definitzen du. Jarraian laburbiltzen dira eta Eranskinean xehetasun handiagoz deskribatzen dira.

I. Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen arloko lehentasunak

Sostengu-puntu estrategikoa	Lehentasuna
·I. Etixerako Sostengu-puntua.	·Share Proposamena sustatzea, erantzukidetasun-printzipioaren aplikazioa sustatzeko. · <i>Etxe</i> -ereduak dibertsifikatzeko pilotajeen bultzada progresiboa.
·II. Orientaziorako Sostengu-puntua.	·Erakunde-tutoretza optimizatzeko lantaldea sortzea. · <i>Mentoria</i> motako ereduaren hedapen sozialerako erakunde bat sortzea.
·III. Prestakuntzarako Sostengu-puntua.	·Tokiko hizkuntzak ikasteko ibilbide espezifiko eta trinkoa antolatzea. ·Laneratzeko dakarten lanbideei lotutako lanbide-orientazioa eta ziurtagiri profesional aitortuarekin amaitzen diren prestakuntza-prozesuak antolatzea. ·Enpresekin hitzarmenak bultzatzea, prestakuntza-eredu dualak garatzeko.

II. Tutoretzapean egondako gazteen eremuko lehentasunak

Sostengu-puntu estrategikoa	Lehentasuna
·Gizarteratzeko eta laneratzeko Sostengu-puntua.	·Gizarteratzen eta laneraten laguntzeko zerbitzu pertsonalizatua sortzea.
·Etxebizitzarako Sostengu-puntua.	·Etxebizitza partekatuetan alokatzeko edo etxeetan harrera egiteko laguntza, Betebeharren eta Eskubideen Kontratuarekin konprometituta dauden gazteentzat.
·Bizi-sostengurako Sostengu-puntua.	·Enplegurako prestakuntzari laguntzeko beka, betebeharren eta eskubideen kontratuarekin konprometituta dauden gazteentzat eta harrera-egoeran dauden gazteentzat.

III. Beste lehentasun osagarri batzuk

Helburua	Lehentasuna
·Hezkuntza-egiturak eta lanbide-heziketakoak indartzea adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetan.	·Hezkuntza-prestakuntzako eta lanbide-gaikuntzako proiektuak bultzatzea adingabe eta gazte migratzaileen jatorrizko eskualdeetan.
·Jatorrizko herrialdeetan aukerak sortzea, haien giza kapitala indartuz.	·Adingabeko migratzaileen jatorrizko eskualdeetan ezarritako euskal enprekin hitzarmenak bultzatzea, prestakuntza eta enplegua emateko jatorrian.

Hori guztia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDLEk eranskin gisa jasotzen den Euskarri Estrategia modu koordinatuan bultzatzeko asmoa dugu, bai eta egoera ahulean dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko lehentasunen arloko aurreikuspenen garapenean aurrera egiteko ere. Horretarako, honako hau onartzen dugu:

Adierazpena

·*Euskarri Estrategia* garatzeko eta haren 12 lehentasunetan aurrera egiteko erabaki partekatua adierazten dugu.

·Erakundearteko lantalde bat sortuko dugu, eta haren egitekoa izango da 12 lehentasunetako bakoitzari lotutako ekimenak garatzeko proposamena definitzea.

·Proposatutako ekimen bakoitza abian jartzeko, erakunde bakoitzeko organo eskudunen baimenak eta onspena beharko dira, gaiaren arabera eta kasuan kasuko izapideak egiteko, kasu bakoitzean bidezkoak diren tresna juridikoen bidez.

Euskarri Estrategia

Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak
gizarteratzeko eta laneratzeko estrategia partekatua

Euskarri Estrategia egungo testuingurura berregokitzeko proposamena

Gasteiz, 2022ko uztaila

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia
Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza

Aurkezpena

2018an zehar, familia-erreferenterik gabeko adingabe migratzaileak Euskadira iristeak, bereziki Bizkaira, progresio esponentziala izan zuen, kudeatzeko eta konpontzeko konplexutasun handiko egoera problematiko bat eragiteko mehatxuarekin. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELek baterako lanari ekin zioten egoera horri erantzuteko estrategia partekatzeko. Lehenengo urratsa 2018. urtearen amaieran sailarteko eta erakundearteko lantalde bat sortzea izan zen.

Talde honek urtebetez baino gehiagoz garatutako prozesuaren ondorioz, zirriborro bat egin zen, "Euskarri Estrategia. Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko lehentasunen euskal erakundearteko programa" izenekoa. Jarduera-planak lehentasunezko hamabi eremu eta esku-hartze proposamen identifikatzen zituen.

2020ko urtarrilaren 22an, lantalde horrek argi berdea eman zion azken dokumentuaren proposamenari, eta prest utzi zuen otsailaren 25ean jendaurrean aurkezteko eta onartzeko, bai Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien Gobernu-kontseiluetan, bai EUDELen batzorde betearazlean.

Hasiera batean 2020ko apirilaren 5erako aurreikusita zegoen hauteskunde autonomikoen deialdiak erabaki hori atzeratzea aholkatu zuen, hauteskunde-legeria betetzeko. Aste gutxiren buruan, OMEk pandemia deklaratu zuen, eta osasun-larrialdi, alarma-egoera eta konfinamendu egoeran sartu ginen. Horren ondorioz, *sine die* atzeratu ziren Euskarri Estrategia onartu eta abian jartzeko aurreikuspen guztiak.

2021eko apirilaz geroztik, sailen eta erakundeen arteko lantaldeak berriro saiatu zen prozesuari ekiten. Dokumentua eguneratu zen, eta 2021eko ekainaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELek "Euskarri Erakundearteko Adierazpena" aurkeztu zuten, formalki eratu zuten Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Mahaia (aurrerantzean, Mahaia), eta lehen lan-agenda onartu zuten 2021eko amaierara arte.

Hala ere, Euskadiko osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioa luzatu egin zen oraindik. 2022ko otsailaren 10era arte egon zen indarrean, eta egoera horrek berriro zaildu zuen agenda horren garapen

egokia. 2022ko otsailetik aurrera, Mahaia, bere Idazkaritza Teknikoaren bidez, Euskarri prozesuari berrekiten, eta hau eguneratzen eta koordinatzen saiatzen ari da.

Hilabete hauetan egindako urratsek eta aurreikuspenen operatibitatea suspertzeko zailtasunek agerian uzten dute 2018 eta 2022 artean testuinguru-aldaketa bat gertatu dela, eta komeni dela Euskadi Estrategia eta haren Koordinazio Mahaia eta haren Lan Agenda birplanteatzea.

Testuinguru-aldaketa hori hiru faktorek markatzen dute nagusiki:

-Familia-erreferenterik gabeko adingabe migratzaileen etorrera eta harrera zentroetako eta zerbitzuetako okupazioa murriztu izana. Egiaztapen horrek nabarmen jaitsi du, kolapso-arriskuaren ondorioz, 2018an bizi izan zen urgentzia, baina ez du deuseztatzen aurreikus daitezkeen edo aurreikusi ezin daitezkeen migrazio-fenomeno berrien aurrean prebenitzeko beharra.

-2021eko urrian onartutako Atzerritarrei buruzko Legearen erregelamenduaren erreforma, 16 eta 17 urteko adingabe atzerritarrek lan egiteko baimenak izatea eta adin-nagusitasuna betetzen zutenek Espainiako Estatuan legez bizitzeko eta lan egiteko paperak lortzea edo berritzea ahalbidetu zuena. Erreforma horrek nabarmen hobetzen du tutoretzapean egondako gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko politiken arazo nagusietako bat.

-Pandemiaren eta Ukrainaren inbasioaren eragina, lehentasun eta larrialdi berriak gehitu baituzte, bai gizarte-politiken eremu orokorrean, bai babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei eta gazteei buruzko politika publikoen eremu espezifikokoagoan. Horren adibide bat Ukrainako errefuxiatuena da; horien artean adingabeak eta gazteak daude, batzuk familia-erreferentziarik gabekoak.

Gogoeta multzo horren harira, Euskarri Estrategia birplanteatzeko eta egokitzeko dokumentu hau aurkezten zaio Erakundearteko Mahaiari, kalteberatasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez 2022ko testuinguruan biltzen diren errealitatera eta faktoretara egokitzeko.

1. Euskarri Estrategiari buruzko proposamena

Euskarri Estrategiaren dokumentua, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELeK 2021eko ekainaren 15ean onartua, ekintza zehatz eta finalisten programa bat izatetik, hausnarketak, proposamenak eta jarduketak bultzatzeko abiapuntu eta tresna-kutxa izatera igaro da. Horrenbestez, erakunde ar-teko jarduera partekatu baten filosofia eta lehentasunen egitura definitzen dituen erreferentzia-esparrua da, kalteberatasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez.

2. Mahaiari buruzko proposamena

Ziklo berri horretan, Mahaiak bi eginkizun nagusi izango ditu:

-Jarraipena eta azterketa. Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez, egoeraren eta bilakaeraren jarraipena eta azterketa egiteko erakundearteko gunea izatea. Eremu horretan, garrantzi berezia hartuko du migrazio-fenomeno berriak balioesteko eta horiei aurrea hartzeko lanak. Mahaiaren lehen eginkizun horrek berekin ekarriko du aldi behingo bileretan gai-zerrendako lehen puntua izatea zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen egoera eta bilakaera islatzen duten datuak partekatzea.

-Jarduera zehatzak bultzatzea. Kasu bakoitzean dagokion eremuan, Euskarri Estrategian oinarrituta, zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen gizarteratzean eta laneratzean aurrerapenak eta hobekuntzak ekar ditzaketen erreformak, jarduerak edo programa zehatzak identifikatzea eta sustatzea. Mahaiaren bigarren eginkizun horren ondorioz, bilera bakoitzeko gai-zerrendan proposamen zehatzak egingo dira, zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen egoera hobetzen lagunduko duten aurrerapenak edo aldaketak gauzatzeko.

3. Mahaiaren lan-metodoari buruzko proposamena

Euskarri Estrategia birplanteatzearen eta egungo testuingurura egokitzearen arabera, Mahaiaren lan-metodoa Lehentasunen Agendak onartzean eta garatzean oinarrituko da. Agenda horiek aldi-aldi eguneratuko dira (gehenez ere urtean behin), egoeraren bilakaeraren eta garatutako edo egiteke dauden jardueren balorazioaren arabera. Identifikatutako lehentasun bakoitzak lan-hipotesi bat izan beharko du, proposamen zehatz gisa, eta Mahaiak aztertu beharko du. Metodologia horrek berekin ekarriko du ahaleginak helburu eta jarduketa kopuru murriztagoan eta progresiboagoan zentratzea eta kontzentratzea, baina une bakoitzean duten garrantzi eta eragin bereziagatik hautatuta.

4. Mahaiaren Lehentasunen Agendari buruzko proposamena

Kontuan hartuta, alde batetik, Euskarri Estrategiaren edukia eta 2018tik aurrerako aurrekariak, eta, bestetik, Estrategia egungo testuingurura egokitzeko eta birplanteatzeko espiritua, Mahaiaren Lehentasunen lehen Agendaren proposamena sei ardatzetan egituratzen da 2022ko bigarren seihilekorako:

<p>1. lehenetasuna</p>	<p>Lan-hipotesi gisa aztertzeko proposamena</p>
<p>·Emantzipazio-prozesuak sustatzea. Tutoretzapean egondako gazteen emantzipazio-prozesuetan laguntzeko eta horiek sustatzeko beharra, haien autonomia eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak bultzatzeko.</p> <p>-Lehenetasuna, bereziki Euskarri Estrategiaren 9. fitxari lotua, baina baita 2. eta 10. fitxei ere.</p>	<p>-Trapezistak Programaren jarraipena egitea eta haren erreplika eta hedapen progresiboa baloratzea, ebaluazioaren arabera. Programa horren esparruan, pilotaje bat egiten da tutoretzapean dauden adingabeekin eta tutoretzapean egondako gazteekin egin beharreko betebeharreri eta eskubideei buruzko borondate-akordioaren gainean. Akordio hori Euskarri Estrategian aurreikusita dago.</p> <p>-Jarraipen eta balorazio hori lurralde historiko bakoitzean antzeko helburuekin martxan dauden beste programa batzuekin osatzea.</p>
<p>2. lehenetasuna</p>	<p>Lan-hipotesi gisa aztertzeko proposamena</p>
<p>·Berrikuntza etxeko ereduetan, tutoretzan edo mentoretzan. Familia-erreferenterik ez duten adingabeei eta tutoretzapean egondako gazteei laguntzeko prozesuetan hobekuntzak eta berrikuntzak aztertzeko beharra, besteak beste, etxeko ereduak dibertsifikatzeko, erakundeen tutoretza egiteko edo mentoretza-prozesuak garatzeko.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 2., 3. eta 4. fitxei lotutako lehenetasuna.</p>	<p>-Foru aldundiek berrikuntza-esparruetan garatzen dituzten programen jarraipena egitea familia-erreferenterik gabeko adingabeei eta tutoretzapean egondako gazteei laguntzeko prozesuetan, eta horien erreplika eta hedapen progresiboa baloratzea, ebaluazioaren arabera.</p> <p>-Gazteei zuzendutako eta Eusko Jaurlaritzako Asilo eta Migrazio Zuzendaritzak sustatutako mentoretza-programaren jarraipena egitea.</p>
<p>3. lehenetasuna</p>	<p>Lan-hipotesi gisa aztertzeko proposamena</p>
<p>·Tokiko hizkuntzak ikastea. Tokiko hizkuntzak ikasteko prozesuak eta denborak hobetzeko beharra, oinarrizko prestakuntzako programekin batera, bereziki ibilbide profesionalik edo akademikorik ez duten migratzaile gazteentzat.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 5. fitxari lotutako lehenetasuna.</p>	<p>-Hezkuntza Sailburuordetzak, 2022ko irailetik aurrera, familia-erreferenterik gabeko etorkinen prestakuntza-premia espezifikoa eragokitutako prestakuntza-ibilbideak bultzatuko ditu.</p>

<p>4. lehentasuna</p>	<p>Lan-hipotesi gisa aztertzeko proposamena</p>
<p>·Lanbide-esperientzia egiaztatzea. Mekanismo arinak ezarri behar dira beren herrialdean ibilbide profesionala edo akademikoa duten gazte migratzaileen gaikuntza egiaztatzeko, bai eta praktika profesionalerako kontratuak eskuratzeko ere. -Euskarri Estrategiaren 6. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>-Lanbide Heziketako Sailburuordetzak konpromisoa hartzen du familia-erreferenterik gabeko etorkin gazteek lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeko prozeduran parte hartzeko modua aztertzeko 2022an.</p>
<p>5. lehentasuna</p>	<p>Lan-hipotesi gisa aztertzeko proposamena</p>
<p>·Formazio-prozesu egokituak. Tutoretzapean dauden eta tutoretzapean egondako gazteen errealitatera egokitutako prestakuntza-prozesu erabilgarriak artikulatzeko beharra, azkenean ziurtagiri akademiko aitortuarekin amaitzeko. -Euskarri Estrategiaren 6. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>-Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, Lanbide eta, hala badagokio, Hirugarren Sektoreak familia-erreferenterik gabeko etorkinen prestakuntza-premia espezifikotara egokitzen diren prestakuntza-ibilbideak egingo dituzte, eta, horretarako, koordinazio-eta azterketa-gune bat sortuko dute.</p>
<p>6. lehentasuna</p>	<p>Lan-hipotesi gisa aztertzeko proposamena</p>
<p>·Laneratzeko enpresetara sarbidea. Oinarrizko gizarte-zerbitzuek laneratzeko enpresetan sartzeko ziurtagiriak ematea bizkortu eta erraztu behar da. -Euskarri Estrategiaren 6. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>-Lan eta Enplegu Sailak 182/2008 Dekretua berrikusiko du, eta dekretu berri bat onartzea bultzatuko du, egungo beharrei erantzuteko, laneratzeko enpresetan sarbidea errazteko eta gizarteratzeko ibilbideak garatzen laguntzeko.</p>

7. lehentasuna	Lan-hipotesi gisa aztertzeko proposamena
<p>Erakundeen arteko erantzukidetasuna. Gobernantza erantzukidea gauzatzen lagunduko duten erakunde arteko akordioak sustatzea, familia-erreferenterik gabeko adingabeen eta gazteen integrazio-prozesuak bultzatzeko eta ibilbide horietan sortzen diren arazoak eta botila-lepoak konpontzeko.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 1. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>-Espainiako Gobernuarekin duen harremanean, Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko izaerari eutsiko dio migrazioaren eta asiloaren arloko transferentziari dagokionez, eta, zehazki, eskumen betearazlea bere gain hartzeko atzerritarren lan-baimenak emateko kudeaketan.</p> <p>-Gobernuaren hiru Ordezkariordeizei proposatzea koordinazio-sistema eraginkor bat sortzea, batez ere lan-epe mugatua duten gazteen egoitza-espedienteak ebazteko atzerapenari dagokionez hautematen diren korapilo juridiko-administratiboak konpontzeko.</p>

Euskarri Estrategia

20**23**ko Memoria eta
20**24**rako Lehentasunen Agenda

Euskarri Estrategiaren erakundearteko Koordinazio-Mahaia
Gasteiz, 2024ko otsailaren 1a



Aurkezpena

I. Lehen aurrekariak

2018an zehar, familia-erreferenterik gabeko adingabe migratzaileak Euskadira iristeak, bereziki Bizkaira iristeak, progresio esponentziala izan zuen, eta horrek kudeaketan eta konponbidean konplexutasun handiko egoera problematikoa eragitearekin mehatxatzen zuen. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta EUDELe elkarrekin lan egin zuten egoera horri erantzute aldera estrategia partekatzeko. Lehenengo urratsa sailen arteko eta erakundeen arteko Lantalde bat sortzea izan zen, 2018. urtearen amaieran.

Talde horrek urtebete baino gehiagoz garatutako prozesuaren ondorioz, zirriborro bat egin zuen: “Euskarri estrategia. Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko lehentasunen euskal erakundeen arteko programa”. Lehentasunezko esku-hartzeko hamabi eremu eta proposamen identifikatzen zituen jarduera-plana.

2020ko urtarrilaren 22an, lantalde horrek argi berdea eman zion azken dokumentuaren proposamenari, eta prest utzi zuen otsailaren 25ean Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako Gobernu Kontseiluetan eta EUDELeko Batzorde Betearazlean onartzeko eta jendaurrean aurkezteko.

Hasiera batean 2020ko apirilaren 5erako aurreikusita zegoen hauteskunde autonomikoen deialdiak erabaki hori atzeratzea aholkatu zuen, hauteskunde-legedia betetzeko. Handik aste gutxira, OMEk pandemia deklaratu zuen, eta osasun-larrialdiko egoera batean, alarma-egoeran eta konfinamenduan sartu ginen. Horren ondorioz, sine die atzeratu ziren Euskarri Estrategia onartzeari eta abian jartzeari buruzko aurreikuspen guztiak.

2021eko apirilaz geroztik, sailen eta erakundeen arteko lantaldeak berriro ekin zion prozesuari. Dokumentua eguneratu zen eta, 2021eko ekainaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta EUDELe “Euskarri Erakundearteko Adierazpena” aurkeztu zuten, formalki eratu zuten Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Mahaia (aurrerantzean, Mahaia), eta 2021era bitarteko lehen Lan Agenda onartu zuten.

Dena den, Euskadiko osasun-larrialdiaren adierazpena denboran luzatu zen. 2022ko otsailaren 10era arte egon zen indarrean, eta egoera horrek agenda hori behar bezala garatzea zaildu zuen. 2022ko otsailetik aurrera, Mahaia, Idazkaritza Teknikoaren bitartez, Euskarri prozesua berrartzen, eguneratzen eta koordinatzen saiatu zen.

II. Testuinguru-aldaketa

Hilabete horietan egindako urratsek eta aurreikuspenen eraginkortasuna suspertzeko zailtasunek agerian utzi zuten 2018tik 2023ra testuinguru-aldaketa bat gertatu zela, eta horrek Euskarri estrategia eta Koordinazio-mahaia eta haren Lan-agenda birplanteatzea gomendatzen zuela.

Testuinguru-aldaketa horrek hiru faktore nagusi zituen:

-Familia-erreferenterik gabeko adingabe migratzaileen etorrera eta harrera-zentro eta -zerbitzuetako okupazioa murriztea. Egiaztapen horrek nabarmen gutxitu du kolapso-arriskuaren ondorioz 2018an bizi izan zen premia; baina ez du deuseztatzen aurreikus daitezkeen eta aurreikusi ezin daitezkeen migrazio-fenomeno berrien aurrean prebenitzeko beharra.

-Atzerritarrei buruzko Legearen erregelamenduaren erreforma, 2021eko urrian onartua, 16 eta 17 urteko adingabe atzerritarrek lan egiteko baimenak izatea eta adin-nagusitasuna betetzen zutenek Espainiako Estatuan legez bizitzeko eta lan egiteko paperak lortzea edo berritzea ahalbidetu zuena. Erreforma horrek nabarmen hobetzen du tutoretzapeko gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko politiken arazo nagusietako bat.

-Pandemiaren eta Ukrainaren inbasioaren eragina, lehentasun eta premia berriak gehitu baitituzte, bai gizarte-politiken eremu orokorrean, bai babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei eta gazteei buruzko politika publikoen eremu espezifikagoan. Horren adibide da Ukrainako errefuxiatuena; horien artean daude adingabeak eta gazteak, batzuk familia-erreferenterik gabekoak.

-Duela gutxi, intzidentzia-faktore garrantzitsu berri bat gehitu da. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko adina 18 urtera arte murriztean datza. Neurri horrek nabarmen hobetuko ditu zaugarritasun-egoerak bazterketa-arriskuan dauden gazteen kasuan.

Lau horiek ez dira testuinguru-aldaketa definitzen duten faktore bakarrak. Beste batzuk ere gehi litezke, hala nola Errefuxiatuentzako Kualifikazioen Europako Pasaportea (EQPR), errefuxiatuen kualifikazioak aitortzea errazten duen tresna berria, dokumentaziorik ez dagoenean ere.

III. Ikuspegi berria eta lan-metodo berria

Gogoeta horien harira, Erakundearteko Mahaiak, 2022ko uztailaren 14an, "Euskarri Estrategia birplanteatzea eta egokitzea" dokumentua onartu zuen, zaugarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez, 2022ko testuinguruan, biltzen diren errealitate eta faktoreetara egokitzeko.

Birplanteamendu hori onartu zenetik, Euskarri Estrategiaren hasierako dokumentua hausnarketak, proposamenak eta jarduerak bultzatzeko abiapuntutzat eta tresna-kutxatzat hartu zen. Horrenbestez, erreferentzia-esparru bat zen, zaugarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko erakundeen arteko jarduera partekatu baten filosofia eta lehentasunen egitura definitzen zituena.

Une horretatik aurrera, Mahaiak bi eginkizun nagusi hartzen zituen bere gain:

-**Jarraipena eta analisia.** Zaugarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen gizarteratzeari eta laneratzeari buruzko egoeraren eta bilakaeraren jarraipena eta analisia egiteko erakunde arteko gune bat izatea. Eremu horretan garrantzi berezia izango du migrazio-fenomeno berriak balioesteko eta aurrea hartzeko lanak. Mahaiaren lehen eginkizun horrek berekin ekarriko du, aldi behin egiten dituen bileretan, zaugarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen egoera eta bilakaera islatzen duten datuak bateratzea gai-zerrendako lehen puntuan. Euskarri Estrategiak izaera dinamikoa du Mahaiaren lan-gidoi gisa.

-Jarduera zehatzak bultzatzea. Kasuan kasuko eremuan, Euskarri Estrategian oinarrituta, zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez aurrerapenak eta hobekuntzak ekar ditzaketen erreforma, jarduera edo programa zehatzak identifikatzea eta bultzatzea. Mahaiaren bigarren eginkizun horren ondorioz, bilera bakoitzeko gai-zerrendan proposamen zehatzak egingo dira, zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen egoera hobetzeko aurrerapen edo aldaketa horiek gauzatzeko.

IV. Urteko Lehentasunen Agendak garatzea

Berregokitze-dokumentu hartan honako hau ezartzen zen: “Euskarri Estrategia birplanteatzearen eta egungo testuingurura egokitzearen arabera, Mahaiaren lan-metodoa Lehentasunen Agendak onartzean eta garatzean oinarrituko da, eta horiek aldian behin eguneratuko dira (gehienez ere, urtero), egoeraren bilakaeraren eta garatu diren edo egiteke dauden jardueren balorazioaren arabera”.

Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Koordinazio Mahaiaren Lan-agendak, 2022ko uztailan onartuak, honako zazpi lehentasun-ardatz hauek zehaztu zituen:

- 1. lehentasuna. Emantzipazio-prozesuak sustatzea.
- 2. lehentasuna. Berrikuntza etxe-ereduetan, tutoretzan edo mentoretzan.
- 3. lehentasuna. Tokiko hizkuntzak ikastea.
- 4. lehentasuna. Lanbide-esperientzia egiaztatzea.
- 5. lehentasuna. Prestakuntza-prozesu egokituak.
- 6. lehentasuna. Euskadin bizi diren eta lan-baimenik ez duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzekeko ibilbideak garatzea.
- 7. lehentasuna. Erakundeen arteko erantzunkidetasuna.

Lehentasun horietako bakoitzari hainbat proposamen lotu zitzaizkion, lan-hipotesi gisa. Metodologia honen helburua da ahaleginak helburu eta jarduera txikiagoetan eta progresiboagoetan kontzentratzea, baina une bakoitzean duten garrantzi eta eragin bereziagatik hautatuak.

Horrela, 2023ko urtarrilaren 12an, Euskarri Estrategiaren Erakundearteko Koordinazio Mahaiak 2022ko Memoria eta 2023rako Lehentasunen Agenda onartu zituen. Aurrekari horiek oinarri hartuta, 2024ko otsailaren 1ean beste dokumentu bat onartu zen foro honetan, 2023an egindakoaren memoriarekin eta 2024rako aurreikusitakoaren plangintzarekin.

Aurkezpen honez gain, dokumentu honek bi zati ditu. Lehenik eta behin, 2023 balantzearen eta 2024 lehentasunen laburpen-taula bat, ezarritako zazpi jarduera-ardatzetan. Bigarrenik, dokumentuaren ondorioak labur-labur azalduko dira.

Koadroak informazio guztia lau zutabetan laburbiltzen du. Lehenengoan, lehentasun bakoitzaren formulazioa hitzez hitz jasotzen da. Bigarren zutabean, 2023rako lehentasun bakoitzari lotu zitzaizkion lan-proposamenak jasotzen dira. Hirugarren zutabean jarduera bakoitzaren garapena deskribatzen da. Eta laugarrenean 2024rako lehentasunak jasotzen dira.

Ondorioen azken atalak, egindako lanaren balantze orokorra emateaz gain, 2024. urteari aurre egiteko jarduketa-irizpide batzuk planteatzen ditu. Alde horretatik, eta udaberrian Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo direla kontuan hartuta, lan-plana urteko lehen eta bigarren sei hilabeterako aurreikuspen berezietan egituratzen da.

1. 2023ko balantzearen eta 2024ko lehentasunen laburpen-taula

1. lehentasuna	2023rako aurreikuspena	2023an egindakoaren memoria	2024rako lehentasunak
<p>-Emantzipazio-prozesuak sustatzea. Tutoretzapean dauden gazteen emantzipazio-prozesuak lagundu eta sustatu behar dira, haien autonomia eta gizarteratze- eta laneratze-prozesuak bultzatzeko.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 9. fitxari, batez ere, lotutako lehentasuna baina baita 2. eta 10. fitxai ere.</p>	<p>·Trapezistak programari jarraipena ematea.</p>	<p>·Trapezistak lankidetzaz publiko-sozialetik eraiki da. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin batera, Bizkaiko eta Gipuzkoako hirugarren sektoreko 22 erakunde daude inplikaturik. Uztailetik, programa Araban ezarri da lurralde horretako 4 erakunderekin.</p> <p>·Programa abian jarri zenetik, 450 pertsona lagundu dira (437 gizon eta 13 emakume). Bizkaian 371 (358 gizon eta 13 emakume), eta Gipuzkoan 79 (gizonak bakarrik).</p> <p>·116 pertsonak lortu dituzte beren helburuak eta alta eman zaie. % 24,44k baliabide propioekin eusten dio bere bizi-proiektuari.</p> <p>·Trapezistaren profila 22 urte inguruko gizon batena da, familiarik gabe bizi da, Marokotik, Aljeriatik edo Saharaz hegoaldeko Afrikatik dator, lehen edo bigarren hezkuntzako prestakuntza du, Euskadin 18 hilabete baino gehiago eman ditu errolatuta, hiri-inguruetan bizi da eta gizarte-laguntzako sarea eraikitzen ari da.</p>	<p>·Trapezistak programari jarraipena ematea. Horretarako, 5 milioi euroko aurrekontu-partida dago 2024ko ekitaldirako, eta antzeko aurrekontu-konpromisoa 2025eko eta 2026ko urteetarako.</p>

<p>·Jarraipen eta balorazio hori osatzea Lurralde Historiko bakoitzean antzeko helburuak dituzten abian dauden beste programa batzuekin.</p>	<p>·Alokabidek beste programa batzuen jarraipena eta balorazioa egin du bere gizarte-arloan.</p> <p>·Arabako Foru Aldundiak tutoretzapeko adingabeentzako dirulaguntza partida bat izaten jarraitu du (urteko partida: 130.000 €). Laguntza ekonomiko horiek, batez ere, partekatutako pisuak mantentzeko eta alokatzeko izan dira, hileko 375 euroko zenbateko orokorarekin.</p> <p>2023an 53 neska-mutiek jaso dute partida hori (30 bakarrik dauden adingabe atzerritarrak izan dira eta 23 atzerritarrak ez diren adingabeak).</p> <p>Laguntza ekonomiko hori Helduen Bizitzara Igarotzeko Programarekin (Hegan) lotu da, eta etengabeko hezkuntza-laguntza ere eskaintzen du.</p>	<p>·Alokabidek programa horien jarraipena eta balorazioa egiten jarraitzea.</p> <p>·Arabako Foru Aldundiaren aldetik Hegan partida eta programa mantentzea.</p>
<p>·Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, 2023an egindako apustuei eustea:</p> <p>-Hobez programari dagokionez, estrategia eta helburuak birformulatzea.</p> <p>-Ertzaintza kasu arrunten interkomunikazioan sartzea.</p> <p>-PUI finkatzea prestazio ekonomiko gisa BGG eta DSBE jasotzeko aukerarik ez duten zerbitzuen erabil-tzaileentzat.</p>	<p>·Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, 2023an egindako apustuei eustea:</p> <p>-Hobez programari dagokionez, estrategia eta helburuak birformulatzea.</p> <p>-Ertzaintza kasu arrunten interkomunikazioan sartzea.</p> <p>-PUI finkatzea prestazio ekonomiko gisa BGG eta DSBE jasotzeko aukerarik ez duten zerbitzuen erabil-tzaileentzat.</p>	<p>·Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, 2023an egindako apustuei eustea:</p> <p>-Hobez programari dagokionez, estrategia eta helburuak birformulatzea.</p> <p>-Ertzaintza kasu arrunten interkomunikazioan sartzea.</p> <p>-PUI finkatzea prestazio ekonomiko gisa BGG eta DSBE jasotzeko aukerarik ez duten zerbitzuen erabil-tzaileentzat.</p>
<p>I. Enplegua. Gazte ON programak 150 gazte ingururi ematen die arreta integrala urtero. 2023an, 350-400 kasu artatu dira. Programa honek honako hauek biltzen ditu: (1) lan-diagnostikoa, (2) gaitasunei buruzko prestakuntza, (3) praktikak, (4) lan-orientazioa, (5) sostengu ekonomikoa eta laguntza. Aurrekontua: 1.200.000 urtero.</p>	<p>I. Enplegua. Gazte ON programak 150 gazte ingururi ematen die arreta integrala urtero. 2023an, 350-400 kasu artatu dira. Programa honek honako hauek biltzen ditu: (1) lan-diagnostikoa, (2) gaitasunei buruzko prestakuntza, (3) praktikak, (4) lan-orientazioa, (5) sostengu ekonomikoa eta laguntza. Aurrekontua: 1.200.000 urtero.</p>	<p>I. Enplegua. Gazte ON programak 150 gazte ingururi ematen die arreta integrala urtero. 2023an, 350-400 kasu artatu dira. Programa honek honako hauek biltzen ditu: (1) lan-diagnostikoa, (2) gaitasunei buruzko prestakuntza, (3) praktikak, (4) lan-orientazioa, (5) sostengu ekonomikoa eta laguntza. Aurrekontua: 1.200.000 urtero.</p>

II. Gizarte Zerbitzuak. Gazteak hel-
duarora igarotzeko arreta-zerbitzua:

(1) gizarte-laguntza, (2) esku-hartze
sozialeko zerbitzuak, (3) egoitza-izae-
rako prestazioak, (4) prestazio ekono-
mikoak, (5) enplegu-bizkortzailea, (6)
laguntza akademikoa, (7) bizitarako
trebetasunei buruzko prestakuntza,
(8) arreta espezializatua. 2023an 680
gazte artatu dira. 2018tik 3.000 gazte
baino gehiago artatu dira, % 85 baino
gehiagok helburuak betez.

·Gaur egun, Etxebizitza Sailak 11
etxebizitza ditu lagata berariaz beste
herri-administrazio batzuei edo hiru-
garren sektoreko erakundeei, ballabi-
de publikoetatik ateratzen diren edo
baztertuta geratzeko arriskuan dau-
den gazteentzat.

·Ez da tutoretzapeko gazteen egoe-
ra zehatzik antzeman, eta ez da ho-
rren berri eman, Gaztelagun progra-
mari begira aholkularitza partikularra
emateko.

·Eusko Jaurlaritzak tutoretzapeko
gazteek partekatuko dituzten etxebizi-
tzak lagatzeko hitzarmen berriak.

·Etxebizitza libreetan Gaztelagun la-
guntzak eskuratzeko aholkularitza-pro-
grama ezartzea.

·Kolektibo horri etxebizitzak lagatzen
jarraitzea, lehentasunezkoztat jo baita.

·Kasuak detektatzeko eta/edo hartze-
ko kanalak eta irizpideak ezartzea, eta
gazte guztiarentzat eskuragarri dagoen
aholkularitza aurreratua erraztea.

·Gaztelagun Programaren informa-
zioa foro egokietara eramatea, adie-
razitako profilen eskura jartzeko.

2. lehetasuna	2023rako aurreikuspena	2023an egindakoa memoria	2024rako lehetasunak
<p>Berrikuntza etxe-ereduetan, tutoretzan edo mentoretzan. Familia-erreferenterik ez duten adingabeei eta tutoretzapean dauden gazteei laguntzeko prozesuetan hobekuntzak eta berrikuntzak aztertzeke beharra, hainbat arlotan, hala nola, familia-ereduaren dibertsifikazioan, erakundeentzako tutoretza-lanetan edo mentoretza-prozesuen garapenean.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 2., 3. eta 4. fitxer lotutako lehetasuna.</p>	<p>Foru-aldundiek arlo horretan garrantzen dituzten programen jarraipena egitea.</p> <p>Gazteei zuzendutako eta Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak sustatutako Urretxindorra Mentoria Programari jarraipena ematea.</p>	<p>Arabako Foru Aldundiak Aukera Aurreemantzipazio eta Emantzipazio Programa garatu du. 17 plaza ditu, eta 23 neska-mutili eskaini diete arreta. Aurreemantzipaziorako etxe bat eta emantzipaziorako beste bat ditu.</p> <p>Osagarri gisa, familia-sarek gabeko adingabe atzeritarren aurreemantzipaziorako etxe bat du. 27 plazarekin 58 erabiltzailerik eman zale arreta.</p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundiak, GazteOn Sarelan Programaren bidez, beste etxebizitza bat ireki du, 25 plazaz araino iritsiz.</p> <p>Urretxindorrek Gizarte Mentoriako programaren lehen edizioa itxi da hiru Lurralde Historikoetan (Arabako eta Bizkaian lehen aldiz). Egun mentore bako gehiagok eta beste ehun mentoretatu bako gehiagok parte hartu dute.</p> <p>Ikasturte amaiera zela eta, parte-hartzaile guztien (mentoreak eta mentoretatuak) topaketa bat antolatu zen Anoetako estadioan.</p>	<p>Arabako Foru Aldundiak programak mantentzea.</p> <p>Aurreemantzipaziorako eta emantzipaziorako 12 plaza gehiago.</p> <p>Familia-ereduak berritzeko zirraborro tekniko bat egitea (lehenik eta behin, familia-sarek gabeko adingabe atzeritarren egoitza-arretara bideratua) eta zainketa-ereduan, Harremanak ardatz hartuta, Gizarean.</p> <p>Programa birformulaztea, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ebaluazioaren arabera.</p> <p>Urretxindorrek Gizarte Mentoretza programaren edizio berri bat garatzea hiru Lurralde Historikoetan.</p>

3. lehentasuna	2023rako aurreikuspena	2023an egindakoaren memoria	2024rako lehentasunak
<p>·Tokiko hizkuntzak ikastea. Tokiko hizkuntzak ikasteko prozesuak eta denborak hobetzeko beharra, ibilbide profesionala edo akademikoa ez duten migratzaile gazteentzako oinarriko prestakuntza-programekin batera.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 5. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>·Hezkuntza Sailburuordetzak:</p> <p>-Familia-erreferenterik gabeko etorkin gazteen prestakuntza-premia espezifikoetara egokitutako prestakuntza-ibilbideak bultzatzen jarraituko du.</p> <p>-Familia-erreferenterik ez duten eta adin-nagusitasunetik hurbil dauden gazte atzerritarrei irakaskuntza arautua ematen lagunduko die.</p> <p>-2023ko irailetik aurrera, gaikuntza digitaleko gelak ezarriko ditu HBEetako ikastetxe guztietan.</p> <p>-Programa pilotua Begirunerekin garatuko du 2023ko otsailetik aurrera Bilboko HHIn.</p> <p>-Harrera, Ongi Etorri programei jarraituko emango die.</p> <p>-Bideberri, Zehar programa pilotuekin jarraituko du.</p>	<p>·Talde espezifikoak sortu dira ikasle mota horientzat, materiala ikasle bakoitzaren premia espezifikoetara egokitzeko laguntzeko.</p> <p>·Irakaskuntza arauturako sarbidea bermatu zaie eskatu duten gazte atzerritar.</p> <p>·Irailaz geroztik, Trebakuntza Digitaleko Gelak sortu dituzte 28 HHletan.</p> <p>·2023an inkesta egin, datuak prozesatu eta aztertu ziren. Azterlan pilotuaren azken txostena egina dago.</p> <p>·Talde espezifikoak sortu dira, eta Bideberri BHiren harrera-proiektuak aurrera jarraitzen du.</p> <p>·Arabako Foru Aldundiak inoren kargu ez dauden adingabe atzerritarrei arreta emateko Bideberri programa garatu du, alfabetatzean edo hizkuntza ikasten hastean oinarritua.</p>	<p>·Hezkuntza Sailburuordetzak:</p> <p>-Familia-erreferenterik gabeko etorkin gazteen prestakuntza-premia espezifikoetara egokitutako prestakuntza-ibilbideak bultzatzen jarraituko du.</p> <p>-Familia-erreferenterik ez duten eta adin-nagusitasunetik hurbil dauden gazte atzerritarrei irakaskuntza arautua ematen lagunduko die.</p> <p>-Gaikuntza digitaleko gelak mantenduko ditu HBEetako ikastetxe guztietan.</p> <p>-Prozesu horri jarraituko emango zaio.</p> <p>-Bideberri eta Zehar programa pilotuekin jarraituko da.</p> <p>·Arabako Foru Aldundiak programari eutsiko dio, eta lehentasuna emango dio espezializazioa eta laneratzea sustatzeari.</p>

.Artatutako adingabe guztiak (erregistro honen datan 126 baino gehiago) lan egin aurreko prestakuntza-zentroetan matrikulatu dira. Familia-sarerik gabeko adingabe atzerritarren artean, Bideberri programaren barruan, 28 gaztetik 3 atera dira edo bertan daude lanean.

4. eta 5. lehentasunak	2023rako aurreikuspena	2023an egindakoaren memoria	2024rako lehentasunak
<p>·Lanbide-esperientzia egiaztatzea. Beren herrialdean ibilbide profesionala edo akademikoa duten gazte migrazioaileek gaitasunak egiaztatzeko prozeduran parte hartzeko mekanismoak ezartzeko beharra.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 6. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>·Lanbide Heziketako Sailburuordetzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Oinarriko LH birformulatzeko proiektua aplikatzen jarraituko du. -Gaitasunak egiaztatzeko dispositiboak egokituko du, prozeduran izena emateko ezarritako baldintzak betetzen direla agiri bidez egiaztatzeko zailtasunak dituzten pertsonen prozeduran fase desberdinetan parte hartu ahal izan dezaten. 	<p>·Lan-esperientzia dutenentzako lanbide-gaitasunen aholkularitzarako, ebaluaziorako eta egiaztapenerako izen-emateko aplikazioan, prozedura horretan izena emateko aukera baliozkotu zaie ezarritako baldintzak betetzen dituztela agiri bidez egiaztatzeko zailtasunak dituzten pertsonei.</p>	<p>·Ezarritako baldintzak betetzen dituztela agiri bidez egiaztatzeko zailtasunak dituzten pertsonen prozeduran izena emateko aukera izaten jarraitzea.</p>
<p>·Prestakuntza-prozesu egokituak. Tutoretzapeko pertsonen eta tutoretzapeko gazteen errealitatera egokitutako prestakuntza-prozesuak antolatzea behar dira, zientziari akademiko aitor-tuarekin amaitzeko.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 6. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>·Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta Lanbidek prestakuntza-ibilbideak lantzen jarraituko dute, laneratzeari erantzuten duten tituluak eta/edo zientziari egiaztatzeko.</p>	<p>·Era berean, lan-merkatuan sartzea ahalbidetuko duten tituluak, zientziari edo egiaztapenerako lortzea erraztuko duten prestakuntza-ibilbideak egiten eta ezartzen lan egin da.</p>	<p>·Tituluak, zientziari edo egiaztapenerako lortzea erraztuko duten ibilbideak ezartzea.</p>

6. lehentasuna	2023rako aurreikuspena	2023an egindakoaren memoria	2024rako lehentasunak
<p>-Euskadin bizi diren eta lan-baimetik ez duten pertsonak gizarteratze eta laneratze ibilbideak garatzea.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 6. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>·Lan eta Enplegu Sailak esperientzia pilotu berritzaileak garatzen jarraituko du, laneratu aurreko egoeran dauden etorkinak gizarteratzen eta erregulartzatzen laguntzeko (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin, Atzeritartasunarekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan), eta horien ondorioak aurkeztuko ditu.</p>	<p>·2023an, gizartean errotuta dauden esperientzia pilotuak jarri dira abian, enpresako prestakuntzarekin eta praktikekin lotutakoak, lan-merkaturaren sartzeara eta erregulartzatzea lortze aldera. Esperientzia horietan 35 pertsonak parte hartu dute Gipuzkoan (23 pertsona kontratatu dira), 44 pertsonak Bizkaian eta 32 pertsonak Araban. Gaur egun prestakuntza-prozesuan dago.</p> <p>·Gipuzkoan prestakuntza bidez osatutako sektorean errotzeko programa pilotu bat garatu da. Programa horretan 30 pertsonak parte hartu dute, eta horietatik 21 kontratatu dira.</p>	<p>·2024an, Lanbideren programazioan bi deialdi espezifiko sartu ziren:</p> <p>-2024-2025eko prestakuntzarako errotzeagatiko erregulartzatzeorako proiektu integralak: 3.000.000 euroko deialdia, 300 pertsonak parte hartzea aurreikusten dena.</p> <p>-Gizarte-sustraitzeagatiko erregulartzatzeorako proiektu integralak 2024-2025: 2.000.000 euroko deialdia, 500 pertsonak parte hartzea aurreikusten duena.</p>
<p>·Lan eta Enplegu Sailak, 182/2008 Dekretua berrikusi ondoren, Dekretu berri bat onartzea bultzatuko du, egungo beharrei erantzuteko, laneratze enpresetarako sarbidea errazteko eta gizarteratze ibilbideak garatzen laguntzeko.</p>	<p>·Lan eta Enplegu Sailak, 182/2008 Dekretua berrikusi ondoren, Dekretu berri bat onartzea bultzatuko du, egungo beharrei erantzuteko, laneratze enpresetarako sarbidea errazteko eta gizarteratze ibilbideak garatzen laguntzeko.</p>	<p>·2023an onartu eta argitaratu da urriaren 31ko 162/2023 Dekretua, laneratze enpresen kalifikazioa arautzen duena, horietan sartzeko prozedura ezartzen duena eta 182/2008 Dekretua ordeztzen duen erregistroa.</p>	<p>·Lan eta Enplegu Sailaren 2024ko aurrekontuan, laneratze enpresen laguntzeko 14.693.730 partida jasotzen dira. Lanbideren aurrekontua, laneratze enpresen laguntzeko 2024-2027 laguntza-deialdirako, 13.700.000 eurokoa da.</p>
<p>·Ibilbide partekatuen garatzea, sektore arteko arreta koordinatua edo integratua emateko, arrisku edo bazterketa sozialoraleko egoeran dauden pertsonen zuzenduta. Lan eta Enplegu Sailak eta Lanbide ibilbide partekatuetan laguntzeko proiektu esperimentalak abiaraztea bultzatuko dute.</p>	<p>·Ibilbide partekatuen garatzea, sektore arteko arreta koordinatua edo integratua emateko, arrisku edo bazterketa sozialoraleko egoeran dauden pertsonen zuzenduta. Lan eta Enplegu Sailak eta Lanbide ibilbide partekatuetan laguntzeko proiektu esperimentalak abiaraztea bultzatuko dute.</p>	<p>·2023ko irailean, ibilbide partekatuetan laguntzeko proiektuen esperimendua hasi da. Zehazki, 14 proiektu ari dira pilotatzen esparru horretan, 10 ibilbide sozialoralei dagozkien, 2 lan-ibilbideei eta hezkuntza-ibilbideei, eta 2 lan-ibilbideei eta osasun-ibilbideei. Proiektu horien onuradunak 326</p>	<p>·Ibilbide partekatuetako esperimenduetan 2024ko irailean arte iraungo da. Ondoren, ebaluazioa egingo da. Ibilbide partekatuen proiektuen ebaluazioari abiatuta, beste eremu batzuetara hedatzea baloratuko da, eta ondorioak eta jardunbide egokiak aterako dira, sektore arteko ibilbide misto horietan laguntzeko eredu metodologiko bat definitzen laguntzeko.</p>

<p>2023an eta 2024an zehar, ibilbide partekatuen inguruan esperimentatzea aurreikusten da: soziolaborala integratua, soziolaboral koordinatua laneko eta hezkuntzako koordinatua, laneko eta osasuneko koordinatua. Ekimena toki-mailan garatuko da, sistema eta sektore desberdinetako eragileen arteko lankidetzaren bidez, enplegarritasuna eta laneratzea, bizi-kalitatea eta koordinazio- eta integrazio-dinamikak hobetzeko ebatuak diren proiektu pilotuen bidez, ondoren Euskadi osora errepikatu, orokortu edo eskalatu ahal izateko.</p>	<p>dira guztira, eta horien kostua 834.035 eurokoa da. Proiektu horien eta parte hartzen duten erakundeen eta eragileen xehetasunak webgune honetan kontsulta daitezke: Ibilbide Partekatua (euskadi.eus).</p> <p>2023/2024 Inklusiorako Plan Operatiboak ibilbide partekatuen proiektu horiek jasotzen ditu, arrisku edo bazterketa soziolaboraleko egoeran dauden pertsonen sektoreen arteko arreta koordinatua edo Ongizate Estatuko sistemen artean sarean eskaintzea helburu dutenak.</p> <p>Proiektu esperimental horiek finantzatzeko eta abian jartzeko, Lan eta Enplegu Sailak bi milioi euroko berriazko lerro bat antolatu du plan operatiboaren indaraldiko lehen urterako.</p>
<p>2023/2024 Inklusiorako Plan Operatiboak izaera esperimentaleko programa edo jarduera gisa definitutako 17 proiektu esperimental biltzen ditu, ikuspegi berezia eta berritzailea ematen dutenak eta, emaitza positiboak lortuz gero, beste esparru batzuetara zabal daitezkeenak.</p> <p>Proiektu esperimental horiek finantzatzeko eta abian jartzeko, Lan eta Enplegu Sailak milioi bat euroko berriazko lerro bat antolatu du plan operatiboaren indaraldiko ekitaldi bakoitzerako (2023 eta 2024).</p>	<p>·17 proiektu esperimentalak 2024an zehar hedatuko dira, eta horien ebatuak aurreikusita dago beste esparru batzuetara hedatzeko aukerak baloratuko.</p>

·Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berria. Lan eta Enplegu Sailak eta Lanbidek 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena, ezarriko dute. Lege hori 2023ko martxoaren 29an sartuko da indarrean, eta oso neurri esanguratsuak aurreikusten ditu Euskari estrategiaren xederako, hala nola 18 urtetik gorako gazteek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko aukera izatea, bizi independenteko proiektu bat badute, edo baldintzak malgutzea, kalteberatasun-egoerak kontuan hartuta, hala nola DSBE jasotzeko aukera izatea, EAEn erroldatuta eta benetan bizi badira eskaera egiten den egunean, errefuxiatuek edo gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen zorroko zerbitzuen erabiltzaile diren gazteek, adingabeak babesteko sistemaren mende egon badira, arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende badaude edo bizi independentea prestatzeko programetan parte hartu badute.

·Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legea 2023ko martxoaren 29an sartuko da indarrean. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen dekretua 2023ko azaroaren 21ean onartu zen Jaurritzearen Kontseiluan, eta 2023ko abenduaren 5ean argitaratzea espero da. 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

·DSBEa arautzeko dekretu berria aplikatuko da, 14/2022 Legeak aurreikusten dituen berrikuntza guztiak indarrean jartzea eta hedatzea ahalbidetuko duena.

7. lehentasuna	2023rako aurreikuspena	2023an egindakoaren memoria	2024rako lehentasunak
<p>Erakundeen arteko Erantzunkidetasuna. Familia-erreferenterik gabeko adingabeen eta gazteen integrazio-prozesuak bultzatzeko eta ibilbide horietan sortzen diren arazoak eta botilen lepoak konpontzeko gobernantza erantzukidea gauzatzeko lagunduko duten erakunde arteko akordioak sustatzea.</p> <p>-Euskarri Estrategiaren 1. fitxari lotutako lehentasuna.</p>	<p>·Eusko Jauriaritzak Espainiako Gobernuarekin duen harremanean jarraituko du migrazioaren eta asiloaren arloko transferentziaren lehentasuna azpimarratzen, eta, zehazki, atzerri-tarren lan-baimenak emateko kudeaketaren eskumen betearazlea bere gain hartzeko.</p>	<p>·Azken urteotan, Eusko Jauriaritzak hainbat aldiz jo du Espainiako Gobernura migrazioarekin lotutako hainbat proposamen errepikatuz. 2022an egindako gestioen ondorioz, aurten bi lantalde tekniko sortu dira: bata, otsailaren 20an, migrazio-eskumenari buruzkoa, eta bestea, otsailaren 27an, asilo-, harrera- eta integrazio-politikei buruzkoa.</p> <p>Lehenengoan, Eusko Jauriaritzak bere proposamena berretsi zuen, hau da, besteren edo norberaren kontura bizi eta lan egiteko baimenak (behin-behinekoak eta/edo hiru urteko aldietarako) izapidetzeko eta ebazteko eskumena transferitzea atzeritarrentzat, baldin eta haien lan-harremana Euskadin garatzen bada edo autonomia-erikidego honetan lan-kontratuaren eskaintza bat badute. Asilo-politikei buruzko Taldean, Eusko Jauriaritzak gobernantza deszentralizaturako oinarrien proposamena helarazi zion Ministerioari.</p>	<p>·Eusko Jauriaritzaren asmoa da Espainiako Gobernuarekin bi lantalde horietan planteatutako edukien inguruko akordioak eta baterako gobernantzarako aukerak aztertzen jarraitzea.</p> <p>Bestalde, Estatuako harrera-sistemen autonomia pertsonalaren fasea Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren gizarferatze-prozesuen ibilbideekin batera datorrela kontuan hartuta, aldi hori finantzatzeko eta transferitzeko dagozkion formak ezarriko dira epe motzean.</p>

<p>·Eusko Jaurlaritzak Gobernuaren ordezkariordetza helaraziko die koordinazio-sistema eraginkor bat sortzeko proposamena, lan-epe mugatua duten gazteen egoitza-espeditentzen ebazpenari buruzko konpiloak konpontzeko.</p> <p>·Eusko Jaurlaritzak Share Proposamena bultzatzen jarraituko du, Estatu eta autonomia-erakunde-erakundearen erantzukidetasun-printzipioaren aplikazioa sustatzeko.</p> <p>·Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta hiru foru-alduek lantalde bat sortuko dute Euskadin Share Proposamena lurraltzeko proposamena aurkezteko.</p>	<p>·Eusko Jaurlaritzak elkarrizketak egin ditu Gobernuaren ordezkariordetzaekin, lan-baimenak eta bizileku-baimenak zailtzen dituzten legeak oztopatzeko.</p> <p>·Share Proposamena lan-tresna gisa sustatzen jarraitu da Espainiako Gobernuarekiko harremanetan eta autonomia-erakundearen arteko esparruetan.</p> <p>·Lantalde bat sortu da hiru foru-alduekin, Euskadin Share Proposamena lurraltzeko proposamena aplikatzeko.</p>	<p>·Gobernuaren ordezkariordetza elkarrizketak proposatzen eta sustatzen jarraitzea, lan- eta egoitza-baimenak zailtzen dituzten legeak oztopatzeko.</p> <p>·Share Proposamena proposatzen eta sustatzen jarraitzea, Estatu eta autonomia-erakundearen erantzukidetasunaren erreferentzia gisa.</p> <p>·Lantalde horri jarraipena ematea, akordio-proposamen bat planteatzeko.</p> <p>·Taldeen barruan, familia-erreferentrik gabeko adingabe migratzaileei dagokienez, lurralde bakoitzeko egoera eta bilakaera ezagutzeko eta partekatze beharra planteatzea, haien gizarteratzea eta hezkuntza bermatzeko neurri adostuak hartu ahal izateko.</p>
---	---	--

2. Ondorioak

2.1. Balantze orokorra

2.1.1. Helburuak betetzearen balorazioa

Dokumentu hau irakurrita atera daitekeen lehen ondorioa da urteko Lehenetasunen Agenden tresnak erakundeen arteko lan eta koordinazio metodo gisa duen erabilgarritasuna berresten dela.

Bestalde, 2023ko Balantzearen Laburpen Taulan egiaztatu ahal izan den bezala, 2022tik aurrerako aurreikuspenen erritmoa eta betetze-maila oso altua da. Lan-egutegiak betetzea ere nabarmena da, nahiz eta zenbait jarduketatan atzerapenak izan, 2023ko hauteskunde-inguruabarrak kontuan hartuta, baita kontrako beste inguruabar batzuk ere, hala nola, pandemia-osteko testuingurua edo gerra-eszenatokien agerpena, eragin global eta lokal garrantzitsuekin.

Guztira 23 ekimenek garatzen dituzte 2022ko uztailaren 14an onartutako “Euskarri Estrategia birplanteatzea eta egokitzea” dokumentuan ezarritako zazpi lehentasunak. Horiek guztiak 2023an garatu dira, gauzatze-maila desberdinetan. Azken batean, Euskarri Estrategiaren 2023ko Lehenetasunen Agendak balantze orokor positiboa eskaintzen du.

2.1.2. Hobekuntza-eremua

Balorazio positibo hori ez da oztopo mahaiaren funtzionamenduan eta lan-planen garapenean ga-beziak identifikatzeko. Bi dira nabarmendu daitezkeen hobekuntza-eremuak, txanpon beraren bi aldeak osatzen dituztenak: harmonizazio hobea, batetik, eta “uharte moduan” funtzionatzea gainditzea, bestetik.

Lehenik eta behin, Mahaiak eta urteko Lehenetasunen Agendek kideen funtzionamenduaren eta koordinazioaren harmonizazioa optimizatzeko balio behar dute, bai eta haien proiektuena eta jarduerena ere.

Bestalde, eta aurrekoa posible izan dadin, beharrezkoa da sail eta erakunde bakoitzak eremu bakoitzeko agendaren logikek konpartimentu itxietan edo, bestela esanda, “uharteetan” funtzionatze-
ra bultzatzen dituzten inertziak gainditzea.

Zaugarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzea eta laneratzea bezain gai sentikorrean eta zeharkakoan, funtsezkoa da sarean funtzionatzea, “artxipelago moduan”. Hau da, aukera handienetara eramandako gobernantza partekatua.

Euskarri Estrategiaren erakundearteko Koordinazio Mahaia harmonizazioaren eta “artxipelagoaren” kulturaren aldeko helburu bikoitz horretan lan egiten duen proiektua da. Hala ere, etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik, funtsezkoa da hasitako bidearen optimizazioa anbizioz planteatzea.

2.1.3. Nabarmentzeko moduko lorpenak eta ondare nagusia

Aurreko oharrean esandakoa gorabehera, etorkizunerako proiektio garrantzitsua duten hiru lorpen handi nabarmendu behar dira: Gobernantza, Koordinazioa eta Zehaztapena.

- Gobernantza. Sailen arteko eta erakundeen arteko lankidetzaren gobernantzako eredu bat taxutu da (partaidetza publikoko, pribatuko eta gizarte zibileko sektore-espazioak barne hartzen dituena), modu arinean funtzionatu duena.
- Koordinazioa. Koordinazio- eta eztabaida-espazio partekatuek eratu ditu, informazio- eta lankidetzaren fluxuak hobetzen lagundu dutenak. Azken batean, koordinazioak emaitzen eraginkortasuna hobetzea ekarri du.
- Zehaztapena. Zeharkako lan-irizpide bat bultzatu da, mahaiaren funtzionamendua *zehatzaren metodologiarekin* eta etengabe ebaluatzen diren proiektu eta helburu argietan islatzearekin lotzen duena.

Laburbilduz, zailtasun eta kontingentzia guztiak gorabehera, Euskarri Estrategiaren erakundearteko Koordinazio Mahaia jardunbide egokia da zaugarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen errealitatea bezalako problematika konplexuari eta poliedrikoari heltzeko. Hori da, ziurrenik, 2023ra arte esperientzia honek utzi duen ondare nagusia.

2.2. 2024ko Lehenetsunen Agendarako irizpideak

2.2.1. Irizpide orokorrak

- Euskarri Estrategia sailen eta erakundeen artean dinamizatzeko, koordinatzeko eta bultzatzeko eginkizunak garatzen jarraitzea.
- Konpromisoak zorrotz betetzea eta helburuak ezarritako lan-egutegiaren arabera garatzea.
- Kogobernantzari dagokionez, konpartimentu itxietan funtzionamenduen inertziak hobeto harmonizatzeko eta gainditzeko helburuak garatzea (uharte modua vs artxipelago modua).

2.2.2. Lehen sei hilekorako irizpideak

- 2024ko Agenda honetan ezarritako aurreikuspenak betetzea, honako zazpi lehentasun hauei lotutako proiektu eta programetarako bateratze- eta koordinazio-irizpidearekin:
 - 1. lehentasuna. Emantzipazio-prozesuak sustatzea.
 - 2. lehentasuna. Berrikuntza etxe-ereduetan, tutoretzan edo mentoretzan.
 - 3. lehentasuna. Tokiko hizkuntzak ikastea.
 - 4. lehentasuna. Lanbide-esperientzia egiaztatzea.
 - 5. lehentasuna. Prestakuntza-prozesu egokituak.
 - 6. lehentasuna. Euskadin bizi diren eta lan-baimenik ez duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak garatzea.
 - 7. lehentasuna. Erakundeen arteko erantzunkidetasuna.

2.2.3. Bigarren sei hilerorako irizpideak

- 2024-2027 aldirako plangintza estrategikoko dokumentu berri bat egitea eta onartzea, gutxienez honako elementu hauek erreferentziatuta hartuta:
 - 2022ko uztailaren 14an onartutako "Euskarri Estrategia birplanteatzea eta egokitzea" agiria- ren balantzea eta ebaluazioa.
 - Mahaiak bere gain hartzen duen sailen arteko eta erakundeen arteko dinamizazio- eta koordinazio-funtzioa.
 - Balantze honetan adierazitako hobekuntza-eremuak eta horien lorpen nagusiak identifikatzea.
- 2024-2027rako plangintza estrategikoko dokumentu berri bat onartu bitartean, Mahaiak 2024rako Lehenetsunen Agendan aurreikusitako zeregin guztiei erantzun beharko die.

2. dokumentua

Komunitate islamikoekin
lankidetzan aritzeko
ADOS Batzordearen
2023-2026 Programa;
eta ADOS Batzordearen
VI. lan-agenda



Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Aholku Batzordearen 2023-2026 Jarduera-Programa

2023ko urtarrila

Aurkibidea

Sarrera.

Lehen atala. 2018-2022ko memoria

1. Jarraitutako ibilbidea eta mugarri nagusiak.

- 1.1. 2018ko apiriletik 2019ko abendura: I. Lan Agenda.
- 1.2. 2020ko urtarriletik abendura: II. Lan Agenda.
- 1.3. 2021ko urtarriletik abendura: III. Lan Agenda.
- 1.4. 2022ko urtarriletik abendura: IV. Lan Agenda.

2. Garatutako ekimen nagusien deskribapena.

- 2.1. ADOS Aholku Batzordearen aurkezpen publikoa euskal komunitate islamikoei.
- 2.2. Komunitate islamikoen egungo errealitateari eta bizikidetzeta-aukerei buruzko ikerketa kualitatiboa.
- 2.3. Erradikalizazio biolentoaren prebentzioari buruzko Nazioarteko Mintegia.
- 2.4. Uztartu esperientzia pilotua, Erradikalizazio Biolentoa Prebenitzeko Gizarte- eta Hezkuntza-Programa.
- 2.5. Esperientzia pilotua Euskadiko hiru meskitetan.
- 2.6. ADOS Batzordearen bi bilera euskal meskiten Imamekin.
- 2.7. Bizikidetzaren aldeko Manifestua.
- 2.8. ADOS Aholku Batzordearen *subhome*-a webgunean.
- 2.9. Gizalegez hezkuntza-akordioa.
- 2.10. Erritu musulman bidezko ehorzketak.
- 2.11. Zerbitzuak pandemian.
- 2.12. Euskadiko erlijioen mapa sozio-erlijiosoa.
- 2.13. Euskadiko Imamen Kontseilua.
- 2.14. Euskadiko Imamei zuzendutako prestakuntza-programa.
- 2.15. "Komunitate musulmana Euskadin" dokumentala.
- 2.16. Euskadiko gazteen aniztasunari eta bizikidetzari buruzko proiektu pilotua.
- 2.17. Komunitate islamikoen aldarrikapenak eta kezkek bideratzea.
- 2.18. Eusko Jaurlaritzaren beste jarduera batzuk, lehenengo Jarduera Programan aurreikusitakoak edo ondoren txertatutakoak, osagarri gisa.

3. Balantzearen ondorio gisa.

Bigarren atala. Lan-plangintza

4. Lan-plangintzaren oinarriak.

- 4.1. Mantentzen diren Eusko Jaurlaritzaren abiapuntuak.
- 4.2. Gako estrategikoa: aniztasunaren zentzua.
- 4.3. ADOS Batzordearen eta Lan-plangintzaren irizpide gidariak.
- 4.4. ADOS Batzordearen zeharkako lehentasunak.
- 4.5. Lan-plangintzaren helburuak eta jardunen ardatzak.

5. Lan-plangintza.

- 5.1. Lehenengo jardunaren ardatza: *Lankidetzeta gehiago.*
- 5.2. Bigarren jardunaren ardatza: *Sozializazio gehiago.*
- 5.3. Hirugarren jardunaren ardatza: *Komunikazio gehiago.*
- 5.4. Zehar-lerroak: *Metodologia, antolaketa eta funtzionamendua.*

Sarrera

I. Lehenengo Jarduera Programa

Komunitate islamiarra da Euskadin presentzia handiena duen kolektibo migratzaileetako bat. Kulturen arteko bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren euskal gizartearen gaur egunerako eta etorkizunerako garrantzi handiko trantsizio-prozesu soziala dira. Horregatik, hain zuzen ere, arreta berezia eskaintzen ari zaie euskal erakundeetan.

Dokumentu hau Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzaren aritzeko ADOS Aholku Batzordearen bigarren Jarduera Programa da. Lehenengoari “Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Programa bizikidetzaren sustatzeko euskal komunitate islamikoekin lankidetzaren” deitu zitzaion. Programa horren indarraldia 2018ko apiriletik 2022a amaitu arte luzatu da.

2018an, 2017-2020 aldirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana zegoen indarrean, eta 2017ko urriaren 10ean onartu zen, Gobernu Kontseiluaren erabakiz. Plan horren bigarren zatian, bizikidetzaren erronka berriei lotutako *giza eskubideen agenda sortu berriari* heldu zitzaion.

Esparru horretan hainbat gai jorratu ziren, hala nola aniztasunaren kudeaketa positiboa, erlijioen arteko bizikidetzaren, arrazismoari, xenofobiari, islamofobiari, gerrari edo nazioarteko terrorismoari emandako erantzunak.

“Akordiorako tresnak” izeneko atal batek erreferentziazko hainbat testu eskaini zituen: 2.5 puntua, *“Bizikidetzaren eta giza eskubideen erronka berrien aurrean akordioa lortzeko abiapuntuak”*; 2.5.1 puntua, *“Erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzaren aurrean, aniztasunaren balioak”*; 2.5.3 puntua, *“Nazioarteko terrorismoaren aurrean, demokraziaren balioak”*; eta, azkenik, 2.5.4 puntua, *“Gorrotu-delituen aurrean, hezkuntzaren balioak”*.

Euskal gizartearen eta mundu globalean XXI. mendearen lehen zati hau planteatzen ari zen kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzaren erronkei modu eraikitzaile eta inklusiboan erantzuteko Eusko Jaurlaritzak oinarri izan zituen testu horiek. Oinarriaren zeharkako sintesi gisa, balio dezala honako printzipio honek, 2.5.3 puntutik aterata:

“Integrazio-printzipioa. *Gizarte- eta hezkuntza-konpromisoa da. Horren helburua kohesio eta gizarteratze politikak, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza eta erlijioen arteko eta kulturen arteko bizikidetzaren sustatzen jarraitzea da, bai tokiko erakundeetatik, bai nazioarteko erakundeetatik”.*

Premisa horiekin, eta Lehendakariak berriaz aginduta, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak sail arteko Lantalde bat koordinatu zuen 2017ko ekainaz geroztik. Lantalde horren helburua izan zen esparru-dokumentu bat egitea, Eusko Jaurlaritzak eremu horretan dituen politikak zentzu-unitate berean integratzeko.

Dokumentu hura 2017ko azaroaren 20an aurkeztu zen. Une horretatik aurrera, lau hilabeteko epea ireki zen proposamenak jasotzeko. Epe hori amaitu eta ekarpenak egin ondoren, 2018ko apirilaren 10ean, Gobernu Kontseiluak “Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Programa bizikidetzaren sustatzeko euskal komunitate islamikoekin lankidetzaren” onartu zuen.

Definizio estrategikoari dagokionez, Jarduera Programa honek zehazten du bere funtsezko gakoak bizikidetzaren integratu eta integratzaileak sustatzea dela, kulturarteko aniztasunaren zentzua garatuz: *“Euskadiko komunitate islamikoak –dio hitzez hitz Programaren testuak– euskal gizartearen parte dira (...). Elkarrekin eta bakean bizi nahi dugu, elkarrekin aske izan. Gizarte bera gara. Horixe da funtsezko abiapuntua; Jarduera Programa hau eta haren estrategia eraikitzeko erabiltzen den paradigma”.*

II. ADOS Batzordea

Jarduera Programa horren aurreikuspen nagusien artean, Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzorde bat sortzea zegoen, eta batzorde horri balio handia eman zion. Eratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bilerak eta harremanak izan zituen Euskadiko komunitate islamikoetako erreferenteekin, batzorde hori prestatzeko.

Horrela, 2018ko apirilaren 14an eratu zen, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariaren aurrean, Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko ADOS Aholku Batzordea. ADOS Batzordeak sailen arteko, erakundeen arteko eta gizartearen arteko lankidetzarako gunek bat izan zen, bizikidetzak bere alderdi anitzetatik eraikitzeko.

Sortu ondoren, ADOS Batzordea erregularitasunez bildu da. Lau urte hauetan, 21 bilkura egin ditu guztira. Lehenengo Jarduera Programaren Lan-plangintzak gidatu du bere ibilbide-orria. Hori oinarri hartuta, errealitatearen beraren gai-zerrendak, behar berrien eta eragiten diguten arazo globalen agerpenak ADOS Batzordearen praktika moldatu eta zehaztu dute.

Planak egokitzeko, urteko Lan-agendetako tresnak erabili dira, aldeztu aurretik Batzordean bertan adostutakoak. 2018tik, lau agenda onartu dira aurreko ekitaldian egindakoaren memoria bat eta hurrengo urterako proiektatzen ziren lan-helburuen proiektazioa aurkeztu dutenak.

Intentsitate pandemikoko bi urteek, jakina, eragina izan zuten, beste edozein jarduera-eremutan bezala, elkarriketarako eta lanerako espazio horren funtzionamendu normalean. Hala ere, ADOS Batzordeak 2020an eta 2021ean egin zituen bileren erritmoari eutsi zion (bideokonferentziaz izan bazen ere), eta planteatu ziren zenbait arazori irtenbideak eskaini zizkien, hala nola, erritu musulmanaren bidez ehorzketak egiteko espazio bat sortzea. Halaber, COVID-19ari aurre egiteko une bakoitzean hartzen ziren prebentzio-neurriak buruzko informazio-zirkularrak arabieraz zabaltzea ere eskaini zuten.

ADOS Batzordeak 2022ko urtarrilaren 29ko bileran eguneratu eta onartu zuen barne-funtzionamenduari buruzko dokumentua. 19 ataletan egituraturako testu honek ADOS Batzordearen helburuak, funtzioak eta osaera-jarraibideak eta lan-metodoa biltzen dituen esparru orokor bat eskaintzen du.

1. atalean, “Izena eta izaera” izenekoan, berretsi egiten da “(...) ADOS Aholku Batzordea kide anitzeko organo bat dela, Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakundeen politika publikoetarako partaidetza-, lankidetzak- eta aholkularitza-organoa, Euskadiko Komunitate Islamikoekiko harremanetan eta kulturen eta erlijioen arteko kohesio eta integrazioaren arloan (...)”.

2. atalak, “Misioa, erronka eta helburuak” izenekoak, honako helburu hauek ezartzen ditu:

·Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta euskal komunitate islamikoarekin batera bizikidetzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Programa garatzen laguntzea;

·Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta euskal gizartean sustraitutako islamak sustatzeko lankidetzan aritzea, irekia, tolerantzia eta erlijio-aitzakiako terrorismoa legitimatzearen aurkakoa;

·Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta lankidetzan aritzea Euskadiko komunitate islamikoekin beharrei eta kezkei erantzuteko, euskal gizartean hobeto integratu daitezen;

·eta joan-etorriko komunikazio arina bideratzen laguntzea, bai Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko komunitate islamikoekin artean, bai komunitate horien eta euskal erakundeekin artean.

4. atalak, “Osaera” izenekoak zehazten du ADOS Batzordea 16 kidek eta presidente batek osatuko dutela. Bokalen osaera paritarioa izango da, eta Euskadiko komunitate islamikoetako kideak zein administrazio publikoetako ordezkariak izango dira partaide.

III. Jarduera Programa berria

2022ko azaroaren 25ean, ADOS Batzordeak bere lau urteko bigarren Lan-plangintzari buruzko eztabaida hasi zuen. ADOS Aholku Batzordearen 2023-2026 Jarduera Programa da, Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko. 2023ko urtarrilaren 28ko bileran, Batzordeak onspena eman zion programa horri.

Azkenik, dokumentua Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, 2023ko apirilean. Bi helburu ditu: alde batetik, bizikidetza eraikitzaileko kulturarteko eta erlijioen arteko proiektu bat eraikitzen duten oinarriak bateratzea; eta, bestetik, horretan lagunduko duten ekimen-proposamen bat partekatzea.

“Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Programa bizikidetza sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan (2018-2022)” erlijio-aitzakiako nazioarteko terrorismoaren atentatuek eta gero eta mehatxu handiagoak markatu zuten. Faktore horrek garrantzi handia izan zuen edukian. Errealitatea aldatu egin da, eta bigarren programa hori bizikidetzaren printzipioak, ardatzak eta helburuak zeharkatzen du nagusiki.

Hiru dira proposamen honen oinarri nagusiak: (1) giza eskubideen, berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren aldeko konpromiso komuna; (2) komunitate islamikoen errealitatea Euskadin sustraitzeko eta kokatzeko apustu bateratua; eta (3) bizikidetza integratu eta integratzaile bat elkarrekotasunaren eta erantzunkidetasunaren irizpide gidariak gidatu behar duen uste sendo partekatua.

Dokumentua bi zatitan egituratzen da. Lehenengoak 2018 eta 2022 urteen artean egindako jardunaren balantzea egiten du. Esperientzia horretan oinarrituta, dokumentuaren bigarren zatiak oinarriak eta 2023-2026 Lan-plangintza aurkezten ditu ADOS Batzorderako. Lehen aldiaren ibilbidetik, hiru jarduera-ardatz nagusi nabarmendu eta proiektatu behar dira, laneko ekimenak eta helburuak kokatzeko: (1) *lankidetzaren gehiago*; (2) *sozializazio gehiago*; (3) eta *komunikazio gehiago*.

Jarduera Programa hau garrantzi handiko zeregina da. Sailen arteko eta erakundeen arteko lankidetzaren eskatzen du, eta erakundeen eta haien aurreikuspenek eta edukiek eragindako gizarte zibilaren arteko lankidetzaren. Orainaldiko eta etorkizuneko bizikidetzan inbertitzeko apustua da. Integrazioan eta aniztasunean inbertitzea, edozein diskriminazio, bereizketa edo desberdintasun saihesteko eta prebenitzeko.

Jarduera Programa hau bizikidetzaren eta giza eskubideen kulturaren alde lan egiteko modu bat ere bada, terrorismoaren, indarkeriaren edo erradikalizazioaren aurrean, edozein forma edo adierazpidetan. Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura arrazakeriaren, xenofobiaren edo islamofobiaren aurrean.

Lehenengo atala
2018-2022 memoria

1. Jarraitutako ibilbidea eta mugarri nagusiak

1.1. 2018ko apiriletik 2019ko abendura: I. Lan Agenda

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Programa bizikidetzaz sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan 2018ko apirilaren 10ean onartu zen, eta, horrekin batera, ADOS Batzordearen I. Lan Agenda ere bai. Agenda horrek 2019ko amaierara arte proiektatzen zuen bere ibilbide-orrria. Jardueraren lehen urte eta erdi hori ADOS Batzordearen funtzionamendua eta helburuak sortzeko, abian jartzeko eta sendotzeko fase gisa eratu zen.

Lehenaldi horretan, nabarmentzekoa da 2018ko ekainetik 2019ko urtarrilera bitartean egin zen ikerketa kualitatiboa, komunitate islamikoek euskal gizartean duten egungo errealitateari eta bizikidetzaz aukerei buruzkoa, bai eta Euskadiko herritar musulmanen kezkei eta aldarrikapenei buruzkoa ere.

Lehenaldi honetako beste mugarrietako bat ADOS Aholku Batzordearen barruan lantalde bat sortzea izan zen. Lantalde horren helburua euskal gizartean sustraitutako islamaz sustatzeko proposamenak prestatzea izan zen. Lan horri amaiera emateko, esperientzia pilotu bat jarri zen abian hiru lurralde historikoetako Euskadiko hiru meskitetan, eta bost eremutako neurriak probatu ziren: hizkuntza, autonomia, generoa, gazteria eta gizarte-diskurtsoa.

2019ko ekainaren 6an, Erradikalizazio biolentoaren prebentzioari buruzko Nazioarteko Mintegia egin zen. Bertan, hiru esperientzia aurkeztu ziren, Erresuma Batuko Erradikalizazioa Aztertze Nazioarteko Zentroa, Kanadako Erradikalizazio Bortitza Prebenitzeko Zentroa eta Erradikalizazio Bortitza Prebenitzeko Uztartu gizarte- eta hezkuntza-programa, Eusko Jaurlaritzak eta ADOS batzordeak sustatutakoa.

1.2. 2020ko urtarriletik abendura: II. Lan Agenda

2019ko amaieran, egindakoaren balantzea egin zen, eta ADOS Batzordearen II. Lan Agenda 2020 amaitu arte. Hala ere, bigarren agenda hartako aurreikuspenak asko nahastu ziren pandemiaren eragin zuzenagatik. Gainera, 2020ko lehen hilabeteetan Eusko Legebiltzarrerako apirilaren 5eko hauteskundeak deitu eta bertan behera utzi ziren, azkenean uztailaren 12an egin zirenak. Eusko Jaurlaritza berria irailaren 4an eratu zen.

Martxotik aurrera, 2020 Covid inpaktuak itzalitako urtea izan zen. ADOS Batzordeak kideen arteko komunikazioa telematikoki mantentzeko oinarritzko jarduerak bat garatu ahal izan zuen. Halaber, itzulpen-, dibulgazio- eta informazio-zerbitzu bat eskaini zien mesкитеi eta Euskadiko komunitate islamikoek, pandemiaren ondorioz une bakoitzean ezartzen joan ziren prebentzio- eta osasun-neurri publikoek buruz.

Pandemiaren ondorioek agerian utzi zuten, halaber, Euskadin beharrezkoa zela, euskal hilerri batzuetan behintzat, erritu musulmanaren pean ehorzketak egin ahal izateko guneak izatea. Lan ardatz hori lehentasunezkoa izan zen 2020an. ADOS Batzordearen kudeaketari esker, Arrigorriagako Udalarekin premiazko lehen akordioa lortu zen, orduetik hilerrian eskuragarri dagoen eta musulmanen errituari jarraiki hainbat hilobi hartu dituen espazio bat egokitzeko.

Hezkuntzaren arloan, 2018an eta 2019an egindako kudeaketa eta bilerekin esker, 2019-2020 ikas-turrietatik aurrera menu berri bat eskaini zen, komunitate islamikoek planteatutako beharretara egokitua, arraina zuen menu obolaktobegetariano baten bidez.

1.3. 2021ko urtarriletik abendura: III. Lan Agenda

2021. urtea ere ez zen pandemiaren eraginetatik kanpo geratu. Hala ere, 2021eko urtarrilean, ADOS Batzordeak III. Lan Agenda prestatu zuen. Komunikazioa eta jarduerak bilera telematikoen bidez mantentzen jarraitu zen, baita, kasuren batean, aurrez aurreko topaketan bidez ere.

Erritu musulman bidezko ehorzketak posible egiten zituzten euskal hilerrietan guneak egokitze-ko 2020an irekitako lan-ildoak aurrera jarraitu zuen. 2021ean hiru bilera egin ziren Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta lurralde horretako udalekin, konponbideak gaitzeko. Kudeaketa horiek, besteak beste, lagundu zuten Gasteizko Udalak hilerriari atxikitako lursail bat mugatzea erabaki zezan, erabilera bererako.

2021ean, ADOS Batzardearen jarduera garatzean kontuan hartu beharreko beste faktore nabarmen bat hura berrosatzea izan zen. Legegintzaldi berriaren hasieran, 2020ko irailean, egin zen sailen berrantolaketak aldaketak ekarri zituen ADOS Batzardearen ordezkari-tza instituzionalaren osieran, eta 2021ean gauzatu ziren.

Aldaketa horiek Batzardeak 2021eko azaroaren 20an egindako bileran egin ziren. Bilera horretan, "ADOS Batzardearen funtzionamendurako barne-dokumentua" aztertu zen, eta, azkenean, 2022ko urtarrilaren 29an onartu zen. Dokumentu hori 19 ataletan egituratuta dago, eta haren osaera eta funtzionamenduaren helburuak, eginkizunak eta jarraibideak biltzen dituen esparru orokorra eguneratzen du.

Dokumentuaren 3. atalak, "Atxikipena" izenekoak, adierazten du ADOS Aholku Batzardea Lehendakari-tzari atxikita dagoela. Zehazki, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren jarduera-eremuan. Idazkaritza horrek bere gain hartzen du politika publikoak koordinatzeko eta trantsizio sozial berriei erantzuteko aliantza instituzionalak eta sozialak dinamizatze-ko eginkizuna, sailen eta/edo erakundeen arteko ikuspegitik.

1.4. 2022ko urtarriletik abendura: IV. Lan Agenda

2022ko lehen hilabeteak ere COVID-19aren mugek baldintzatu zituzten. Arrazoi horregatik, IV. Lan Agendak diseinu programatiko mugatuagoa eta zentratuagoa planteatu zuen, lehentasunez-ko hiru jarduera-eremuetarako lehentasunezko ekimen baten inguruan: *lankidetz*a, *sozializazio*a eta *komunikazio*a.

Euskal hilerrietan erritu musulman bidez ehorzteko guneak bilatzeko lanean jarraitu da. 2022aren amaieran, Gipuzkoako lau udal ari dira beren hilerriak prestatzen: Donostia, Tolosa, Ordizia eta Elgoibar. Beste udal talde bat beren hilerriek eskaintzen dituzten aukera teknikoak aztertzen ari da.

12. II. Jarduera Programaren jendaurreko aurkezpena	· Bizkaian eta Gipuzkoan 2024an zehar II. Jarduera Programa jendaurrean aurkezteko ekitaldia egitea.
13. ADOS Batzordearen komunikazio-euskarriak	· Webgunea eguneratuta edukitzea. · Sare sozialak elikatzea Euskadiko komunitate musulmanarentzat garrantzitsua den informazioarekin. · 4 zirkular editatzea 2024an.
14. Komunikazio-kanpainak bultzatzea	· 2024ko bigarren seihilekoan komunikazio-kanpaina bat proiektatu eta garatzea.

8.4. Zehar-lerroak

Zehar-lerroak	2024ko aurreikuspena
1. Metodologia	· Urtarrila-otsaila bitartean ADOS Batzordearen 2024rako VI. Lan Agenda onartzea. · ADOS Batzordearen 2025erako VII. Lan Agenda prestatzea 2024ko abenduan.
2. Antolaketa	· Batzorde Iraunkorra sortzeko proposamena baloratzea eta, hala badagokio, urtean 1 edo 2 Osoko Bilkurak egitea birplanteatzea. · Batzordearen bilerak gai edo ekimen jakin bati heltzeko berariaz egiten diren beste bilerekin osatzea.
3. Funtzionamendua	· Hauteskunde autonomikoen ondoren gerta daitekeen kargu instituzionalen berritzea aprobetxatzea ADOS Batzordearen osaketa osoa egiteko.

3. dokumentua

Uztartu. Erradikalizazio
biolentoaren prebentziorako
gizarte- eta heziketa-
programa (Bigarren
pilotajea)

Erradikalizazio biolentoaren prebentziorako
gizarte- eta heziketa-programa

UZTARTU

herri honetako ekipora batzen gaituena

2022ko urria

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia
Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza

Aurkezpena

Indarkeriaren edozein agerpen dakarren erradikalizazio-prozesuak okupazio- eta kezka-eremua dira Europan eta Euskadin. Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan azaleratzen ari diren erronketako bat dira. Batez ere gazteen sektoreetan gertatzen den indarkeriaren sedukzioaz ari gara. Erljioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren indarkeriaz ari gara, futboleko indarkeriaz, motibazio nazional edo politikoko indarkeriaz, eskuin muturreko indarkeriaz edo ezker muturreko indarkeriaz, eta arrazakeriaz, xenofobiaz, islamofobiaz edo aporofobiaz.

Gogoeten esparru horretan, 2020aren hasieran, Eusko Jaurlaritzak Uztartu Programa jarri zuen abian, esperientzia pilotuaren fasean. Haren helburua zen erradikalizazio biolentoaren prebentzioaren eremu konplexu eta zabalari erantzutea gizarte- eta hezkuntza-eremutik, edozein dela ere haren agerpena. Orduko Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak sustatutako ekimena izan zen, Eusko Jaurlaritzaren "Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020" eta "Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020" egitasmoen aurreikuspenen arabera.

Ekimen horren hasieran hainbat galdera egin ziren. Lehenik eta behin, bizikidetzarako hezkuntza-politika publikoek egin al dezakete ezer erradikalizazio biolentoaren prebentzioaren arloan? Bigarrenik, posible al da erabilgarriak eta eraginkorrak izan daitezkeen hezkuntza-proposamenak bultzatzea? Eta hirugarrenik, nola, zer tresnarekin, zer estrategiaren bidez ireki daiteke indarkeriaren edozein agerpenen prebentzioan eragin esanguratsua eta positiboa izan dezakeen bide bat?

Lehenengo galderari dagokionez, nolabaiteko irmotasunez esan daiteke politika publikoek prebentzio-politiketan inbertitu dezaketela eta inbertitu behar dutela. Hori ez egiteak, arduragabeke-ria izateaz gain, eragiten dizkiguten arazoei aurre egiteko betebeharraren aurrean ihes egiteko eta baztertzeko modu bat izango litzateke. Egia esan, edozein esparrutako prebentzioa da inbertsiorik errentagarriena, baina baita konplexuena ere.

Bigarren galderaren erantzunak ñabardurak behar ditu. Ez dago prebentzio-proiektu baten eragin-kortasuna aldeztetik bermatzeko modurik. Indarkeria prebenitzeko hezkuntza-jarduerak ez du bermatzen, are gutxiago epe laburrean, indarkeria-ekintzak desagertzea. Prebentzioa bideratu behar da baldintza egokiak sortzera, indarkeriara jotzea aukera baztergarria izan dadin. Prebentziorako hezkuntza masa kritiko sozial bat sortzera bideratu behar da. Masa kritiko horrek bitarteko bake-tsuen aldeko apustua egin behar du, eta, indarkeria-ekintzei erantzutean ere, gai izan behar du indarkeriarik ezaren erresilientziari aurre egiteko.

Hirugarren galderaren erantzunean dago honen gakoa: nola ireki bidea aztarna utziko duen prebentzio-hezkuntzako prozesu bati. Uztartu programaren abiapuntua da erradikalizazio bortitz guztiek

kausa unibertsal komunak izan ditzaketela. Gizarte- eta hezkuntza-programa honek esplorazio-bide bati ekin dio bide horretatik. Kausa unibertsal horiek identifikatzera bideratzen da, ondoren horiek ezagutzeko aukera emango duten esperientzia pertsonalizatueta islatzera eta, azkenik, hezkuntza-eta prebentzio-zentzuarekin lantzera.

Horrela, Uztartu Programak Gizalegez Akordioaren edukia hartu zuen erreferentziatzat, bai diagnostikoari bai proposamenei dagokienez. Akordio hori ia hezkuntza-eragile guztiek sinatu zuten Donostiako Kursaal Jauregian 2013ko urriaren 1ean egindako ekitaldi batean.

Gizalegez akordioa

Bake-kulturaren sustapenak eta gatazka suntsitzailen, giza eskubideen urraketen eta mota guztietako indarkeria-fenomenoen prebentzioak lotura zuzena dute bizikidetzaren urraketen honako lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Prebentziozko erantzun hori eratzearen, gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat garatzea adostu dugu, lau hezkuntza-oinarri alternatiboren bitartez:

·Bizikidetzaren zera da, gure ikuspegia beti osatu gabea dela onartzea. Mugen esperientzia hezigarriak dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.

·Bizikidetzaren zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea. Balio positiboaren esperientzia hezigarriak fatalismoari aurrea hartzen dio eta aniztasuna sustatzen du.

·Bizikidetzaren zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta enpatia eta elkartasuna sustatzen ditu.

·Bizikidetzaren zera da, giza duintasunaren errespetuaren goi-mailako balio ulertzea. Giza duintasunaren esperientzia hezigarriak indarkeriara jotzeari aurrea hartzen dio eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizartearen elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integrala sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere lau oinarri etiko horiei buruzko adostasuna abiapuntu hartuta. Hainbat eremutatik modu osagarrian sustatzea proposatzen dugu, modu sinple, sortzaile, libre eta askotarikoan.

Erradikalizazio biolentoaren pelikulak amaiera txarra izan ohi du. Txarra, protagonistentzat, haien biktimentzat, eta gizartearentzat. Galde dezagun, hortaz, ea zer egin dezakegun gidoia aldatzeko. Gu ez baikara pelikularen ikusle hutsak, gure bizitzaren eta elkarbizitzaren aktore ere bagara. Lana txukun egiten arlo horretan saiatu beharra dago bereziki. Arrazoi askorengatik. Erradikalizazio biolentoak gure gizartearen zenbat adierazpide, hainbat arrazoi.

Lehen zatia

Uztartu Programaren
esperientzia pilotuaren
ikaskuntzak

1. Uztartu Programaren eta haren lehen pilotajearen diseinuaren laburpena

1.1. Diagnostikoa eta pedagogia-gakoak

Uztartu programak diagnostiko bat du oinarri: erradikalizazio biolentoak joera kognitibo batzuk behar ditu. Programa horrek lau kontrabaliu hauetan biltzen du identifikazio hori: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Baten, batzuen edo guztien eraginak erradikalizazio biolentoa erabiltzeko zilegitasuna gaitzen du giza kontzientzian.

Uztartu Programak garatzen duen hipotesia da erradikalizazioaren prebentzioak hausnarketa eta esperientzia sustatu behar dituela lau gune pedagogiko alternatiboren inguruan: izaera mugatuaren, balio positiboaren, kontzientziaren eta giza duintasunaren pedagogia. Hona hemen joera okarren eta aukeren laburpena:

Isuri kognitiboak (aurreiritziak, kontrol tresnak edo uste okerrak)	Erdigune pedagogikoa: gogoeta eta bizipen alternatiboa
I. <i>"Barne-barnean, ziur naiz arrazoi guztia daukadala"</i>	<i>"Beti bada zerbait positiboa dena. Zailtasunen artean, aukerak bilatzen ditut"</i>
Dogmatismoaren eragina	Izaera mugatuaren pedagogia
II. <i>"Garbi sentitzen dut ez dagoela ezer ez onik ez positiborik"</i>	<i>"Beti dago zerbait positiboa. Zailtasunen artean bila ditzaket aukerak"</i>
Fatalismoaren eragina	Balio positiboaren pedagogia
III. <i>"Labur esanda: edo biolentzia edo beste gauza okerragoren bat; dena da balekoa-berdin zait dena"</i>	<i>"Neure buruari galderak egiteko kontzientzia daukat. Nire ekintzak aukeratzeko eta hauen ondorioen erantzukizuna nirea da"</i>
Manikeismoaren eragina	Kontzientzia etikoaren pedagogia
IV. <i>"Ez dago zalantzarik, nire ideiak eta nire taldea dira lehenengo"</i>	<i>"Garrantzitsuena pertsona errespetatzea da. Nire ideiek eta nire taldeak ez dute bizitza eta giza duintasuna baino gehiago balio"</i>
Sektarismoaren eragina	Giza duintasunaren pedagogia

1.2. Uztartu Programaren edukia eta baliabide pedagogikoak

Azaldutako diagnostikoa oinarrituta, Uztartu Programaren edukiak 30 segundoko bost spot ditu ardatz. Lehenengo lauek nabarmendu berri diren nukleo pedagogiko alternatiboekin egiten diote aurre joera kognitibo bakoitzari. Bosgarren iragarkiak laburpen bat eskaintzen du. Horretan oinarrituta,

programak film dokumental bat garatu du. Benetako historia bat da, non protagonistak ezagutzen ez diren 16 gazte diren eta gai horri buruz hitz egiten duten (<https://www.euskadi.eus/uztartu-programa-erradikalizazio-biolentoa-prebenitzeko-esperientzia-pilotua/web01-a2lehetr/eu/>).

Filmak 11 minutuko bost kapitulu ditu, eta izenburu hau du: "Herri honetako ekipora batzen gaituena". 16 gazte horiek lautik lau taldetan hitz egiten dute. Lehenengo lau kapituluetan, talde bakoitzak dagokion iragarkia ikusiko du eta haren edukiari buruz hitz egingo du. Bosgarren kapituluak 16 parte-hartzaileen hausnarketen bateratze-lana islatzen du.

Bost iragarkiak eta dokumentala, lehenik eta behin, erradikalizazio biolentoaren prozesuei buruzko hausnarketa kritikoa sustatzera bideratutako ikus-entzunezko baliabide bat dira. Gainera, material hori tresna bat da gazte-talde txikietan lan hezitzailea eta esperientziala dinamizatzeko, hainbat saiotan banatuta.

Dokumentalean ikus daitekeena gizarte- eta hezkuntza-proiektu hau aplikatu nahi den edozein tes-tuingurutan egitea proposatzen dena da. Horrela, edozein prestatzailek pertsona-talde batekin erabil dezakeen gida didaktikoa da.

Programaren garapenaren osagarri, eta EiTBrekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenari jarraiki, hezkuntza-material honen iragarkiak eta dokumentala "Zerbait lotzen gaitu herrialde honetako taldearekin" euskal telebistaren kanalek eman zituzten.

1.3. Esperientzia pilotuaren egitura

Pilotajearen abiapuntua esperientzia hori 7 eremu desberdinekin lotutako 27 gazte-talderekin garatzea izan zen. Honako aurreikuspen hau egin zen:

Esparruak	Taldeak
·Hezkuntza formala	·Ikastetxe publikoetako eta Ikastolen Elkarteko eta Kristau Eskolako ikastetxeetako LHko eta DBHko zortzi talde, bai eta hiru unibertsitateetakoak ere.
·Hezkuntza ez-formala	·Euskadiko astialdiko talde nagusietako hiru talde.
·Gazteen erakunde politikoak	·Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan parte hartzen duten euskal gazte-erakunde politikoetan militatzen duen gazte talde bat.
·Hainbat erlijiotako gazteak	·Erljio-arloan uste desberdinak dituzten bi gazte-talde.
·Futbol-klubak	·Lehen mailako euskal futbol-taldeetako jarraitzaileen lau gazte-talde.
·Erakundeen babesa	·Adingabeen edo tutoretzapeko gazteen zentroetan edo etxebizitzetan bizi diren sei gazte-talde, horietako bat Zumarragako Ibaiondo Zentroan.
·Espetxeak	·EAEko espetxeetan dauden hiru gazte-talde.

Esperientzia pilotua talde horietako bakoitzean ordubeteko bost saiotan garatzeko diseinatu zen. Saio bakoitzean dokumentalaren bost kapituluetakoko bat ikusten da, eta haren edukiari buruzko lan artikulatu bat garatzen da. Lehenengo lau saioetan, aipatutako lau erreferentzia pedagogikoei buruzko hausnarketa garatzen da, eta bosgarrena ondorio batzuk eratzera bideratuta dago.

1.4. Esperientzia pilotua antolatzea

Taldeekin esperientzia pilotuaren prozesu osoa prestatzeko, koordinatzeko, dinamizatzeko eta ebaluatzeko zereginei ekiteko, Idazkaritza Tekniko bat kontratatu zen gazte zaurgarrien taldeekin harreman- eta kontaktu-esperientzia handia duen erakunde batekin. Agintzari gizarte-ekimeneko kooperatiba izan zen entitate hori.

Taldeen dinamizatzaille-talde zabal bat antolatzeko, lankidetzaz ezarri zen Agintzarirekin eta beste hiru gizarte-erakunderekin: Geuz, Baketik eta Bakeola. Giza Eskubide, Bizikidetzaz eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, programaren sustatzaileak, prestakuntza antolatu eta eskaini zien programan taldeen dinamizatzaille gisa parte hartuko zuten pertsona guztiei.

Pilotajea diseinatu aurretik, gainera, harreman eta elkarrikeria ugari egin behar izan ziren esperientzia behar bezala garatzeko ezinbestekoa zen erakundeekin eta instituzioekin.

Zehazki, honako hauei buruz ari gara: Hezkuntza Saila, Justizia Saila, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Ibaiondo adingabeen zentroa, hiru euskal unibertsitateak, Kristau Eskola, Ikastolen Elkarteak, Astialdiko Taldeak, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Ellacuría Fundazioa, ADOS Batzordea, Lehen Mailako euskal klubak, espetxeak, Euskadiko hiru espetxeetako zuzendaritzak eta sektorean lan egiten duten gizarte-erakundeetako zuzendaritzak.

2. Lehen esperientzia pilotuaren balantzea, iradokizunak eta ondorioak


2.1. Balantze orokorra

I. Parte-hartzea. Esperientzia pilotuaren planteamendu operatiboa pandemiak baldintzatu eta mugatu zuen. Aurreikusitako 27 taldeetatik 14 egin ahal izan ziren.


Esparruak	Hasieran aurreikusitako taldeak	Esperientzia egin duten taldeak
Hezkuntza formala	8	2
Hezkuntza ez-formala	3	2
Gazteen erakunde politikoak	1	1
Hainbat erlijiotako gazteak	2	2
Indarkeria futbolean	4	2
Adingabeen edo gazteen babes instituzionala	6	4
Espetxeak	3	1
GUZTIRA	27	14

II. Ebaluazioa. 14 talde horietan parte hartu dutenek egindako ebaluazioaren arabera, baloratutako parametro guztien batez bestekoa oso altua da. Esperientzia bereziki ondo baloratu da Ibaiondo adingabeen zentroan, esperientzia egin ahal izan zen espetxean, bai eta tutoretzapeko pisu eta zentroetan ere.


Galdera: Lanerako interesa




Galdera: Lana eta Jarduerak



Galdera: Bideoen interesa



Galdera: Gauza berriak ikasi al ditut?



III. Hobekuntzak. Esperientzia dinamizatzen duten erakundeek Uztartu Programaren nukleo pedagogikoari eragiten ez dioten ekarpenak egin dituzte. Programa horrek lau joera kognitibo, aurreiritzi edo kontrabaliotitu aurrez aurre, lau erreferentzia pedagogiko alternatiborekin. Unean uneko hobekuntzak egitea proposatu dute, bai materialari dagokionez, bai prozesuaren garapenari dagokionez.

2.2. Esperientzia pilotua dinamizatzen duten erakundeen iradokizunen laburpena

I. Taldeak eta saioak hobeto ezagutzea aldez aurretik. Programak eraginkortasun pedagogiko handiagoa izateko, aldez aurretik ondo ezagutu behar dira parte hartzen duten taldeen profilak, eta talde bakoitzaren errealitatera egokitutako saioen prestakuntza espezifiko behar da. Dinamizazio-baliabideak ezin dira berdin-berdinak izan tutoretzapeko zentro batean, espetxe batean, astialdiko talde batean, Bigarren Hezkuntzan edo unibertsitatean.

II. Prozesua luzatzea eta baliabide osagarriak gehitzea. Espetxeen eta/edo esku-hartze sozialetako zentroen kasuan, programa agian eraginkorragoa izan liteke zentro horietan garatzen ari diren irismen handiagoko prozesuetan sartzen bada. Planteatzen den hipotesia da material hori tresna baliagarria izan daitekeela indarkeria lantzeko, ibilbide luzeagoko prozesuetan kokatzen bada. Prozesua luzatzearen barruan, beste material osagarri batzuk sar daitezke, hala nola filmak, dokumentalak, komikiak..., gai bakoitza babesteko. Kasu batzuetan, banakako lan-saioak egitea ere kontuan har daiteke, adingabe/gazte bakoitzarekin jarraitzen den programaren arabera.

III. Barne-taldeen inplikazio handiagoa. Ildo beretik, baloratu behar da zentro horietako barne-taldeek parte har dezaketela Uztartu Programaren dinamiketan. Ez bakarrik beren taldeak hobeto ezagutzen dituztelako, baita modu egokian kudeatu ahal izango diren eta irekita geratu beharko ez luketen banakako prozesu emozionalak ireki daitezkeelako ere.

IV. Hobekuntzak ikus-entzunezko materialean. Ikus-entzunezko materialak zenbait aldaketa behar ditu, ulergarriagoa eta eskuragarriagoa izan dadin. Euskara ez dakiten edo behar beste ulertzen ez duten pertsonak parte hartu dutenean, 2. eta 5. kapituluek ulermen-arazoak planteatu dituzte. Azpigituluak –ez gaztelaniaz, ez arabieraz– ez dute ongi funtzionatzen, kasu batzuetan irakurtzeko gaitasunak ez direlako nahikoak. Bestalde, arabierazko azpigituluak Dariyara itzuli beharko lirateke (Marokoko arabiera). Aukera bat izan liteke materialak gaztelaniara bikoiztea ahotsa euskaraz denean, eta gako-mezuak gaztelaniara itzultzea, proiektio elebidunarekin, eta, gainera, bideo guztiak Dariyan azpigitulatzea.

V. Baliabide osagarrien erabilera. Esperientzia pilotuaren garapenean, erakunde dinamizatzaileek baliabide osagarriak erabili zituzten, hala nola:

- Diapositiba batzuk, eztabaida mezuen nukleoetan finkatzeko.
- Neska-mutilek egindako baieztapenen erreferentziak adibide gisa erabiltzeko.
- Benetako albisteen egunkari-zatiak, hausnarketa hurbileko errealitatearekin eta kasuekin lotzeko.
- Errealitate zehatzei lotutako kasu praktikoko hipotetikoak modelizatzea.
- Dinamizazio aktiboko teknikak erabiltzea parte-hartzea eta bizipena sustatzeko. (Bideoaren azken dinamikan, gazteek pertsona desberdinekin kointzidentziak partekatzen dituzte, eta oso errepikagarria da)

2.3. Uztartu Programaren beste fase baterako ondorioak

I. Esperientziaren jarraipena. Esperientzia pilotuan parte hartu duten pertsonak egindako ebaluazioaren eta dinamizatzaileen balorazioen eta iradokizunen arabera, Uztartu Programari jarraipena eman behar zaio, haren garapenean fase berri bat proiektatuz.

Esperientzia pilotuaren lehen fasea baldintzatu zuen pandemiaren kontingentzia dela eta, etapa berri hau bigarren pilotutza izango da eta modu kontzentratuagoan aplikatuko da hiru eremu nagusitan. Etapa berri horren diseinua 2022-2023 ikasturtean inplementatzeko planteatzen da. Hau da, 2022ko urritik 2023ko ekainera.

II. Bigarren pilotajearen eremuak definitzeko irizpideak. Uztartu Programa fase berri batean zentratuko den hiru eremuak hautatzeko irizpide nagusiak bi dira:

- Ebaluaziorik onena. Esperientzia pilotuaren lehen faseko ebaluazioak kalifikazio onena lortu duen taldeak hartu dira kontuan.
- Zaugarritasun handiagoa. Kalteberatasun handieneko eremuak identifikatu dira, eta programak bere prebentzio-ahalmena sakondu dezakeen eremutan.

III. Hautatutako eremuak. Irizpide horien arabera, Uztartu Programari jarraipena emateko proposamenak espesifiketara, Ibaiondo adingabeen zentrori eta tutoretzapeko etxebizitzari eta zentroetara mugatzen ditu esku-hartze eremuak. Hasierako planteamendu hori bateragarria izango da beste eremu batzuetan planteatu daitezkeen berariazko eskaerei erantzuteko aukerarekin.

IV. Saio-kopurua handitzea. Lehen pilotajearen balantzea kontuan hartuta, bigarren etaparako hasierako moduluari egitura berean eutsiko dion programa bat diseinatu da, hasierako bost saiorekin, eta guxtienez beste bost gehituko dira, tresna pedagogiko jarraitua izan dadin. Saio berriak eguneroko bizitzako arazoei edo bizitzaren publikoko gatazkei lotuta garatuko dira, saioen batean film baten inguruko jarduerak tartekatuz. Kasu guztietan, gida didaktikoa Uztartu Programaren lau tresnen inguruan garatuko da.

Bigarren pilotajea

V. Materialak indartzea eta hobetzea. Aurreko guztiaren arabera, Uztartu Programaren oinarritzko dokumentua eta gida didaktikoa egokituko dira. Bigarren piloturako materialak esperientzia pilotuaren lehen faseko entitate dinamizatzaleek hizkuntza-tratamenduaren, azpitoluen, dinamizazio-metodologiaren eta baliabide osagarrien arloan iradokitako hobekuntzak jasoko ditu.

Bigarren zatia
Oinarri kontzeptualak

Esperientzia pilotuaren emaitzak berretsi egiten ditu Uztartu Programaren hasierako planteamenduaren diagnostikoa eta proposamen pedagogikoa. Bigarren pilotura begira, edukia bere horretan mantendu da. Kontzeptuzko oinarri horiek gehiago garatzen dira sarreran aipatutako dokumentuetan, bereziki "2017-2020ko Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarrian". Dokumentu honetan laburrago azaltzen dira haren hiru oinarriak: diagnostikoa, estrategia eta helburuak.

3. Erradikalizazio biolentoaren arrazoiak eta kontzientzia pertsonala: diagnosis

Erradikalizazio biolentoaren edozein adierazpidetako prozesuen ezaugarria da norberaren kontzientzian lehentasuna ematea etiketa etniko, erlijioso, politiko, genero, sozial, sektario, kirol edo jatorrizko baten balioari, giza duintasunaren balioaren gainetik. Gorrotoaren etiketa horietan, aurreiritzia, ezjakintasuna eta oldarkortasuna arrazoimenaren eta gizateriaren gainetik jartzen dira.

Erradikalizazio biolentoa bizikidetzaren hausteko modu bat da. Gizalegez Akordioaren edukiak dio bizikidetzaren hausteko arrazoi nagusiak dogmatismoaren, fatalismoaren, manikeismoaren edo sektarismoaren giza kontzientzietan arrakasta izatea direla. Humus horretan aurkitzen dute erradikalizazio biolentoaren prozesuek elikatze ideologikoa eta justifikatzailea.

Lau paradigma horiek modu desegokian kokatuta egon daitezke, bai gizarte-kulturan, bai pentsamolde pertsonalean. Ezaugarri komun bat dute: inposizioa, indarkeria, giza eskubideen urraketa edo etikoak ez diren bitartekoen erabilera normalizatzen dituzte. Erradikalizazio biolentoaren kausei buruzko diagnostikoa osatzen dute kontzientzia pertsonalean:

3.1. Dogmatismoa

Norbera guztiz zuzen dagoela eta egia osoaren jabe dela pentsatzea dakar. "Segurtasun" uste hau nahitaezkoa da etikoak ez diren bideak legitimatzeko eta hauek erabiltzera ausartzeko. Dogmatismoa norberaren izaera mugatuaren kontzientzia behar bezalakoa ez izatearen ondorioz sortzen eta hazten da.

3.2. Fatalismoa

Funtsean ikuspegi biktimista da, eta inposizioa ez beste aukerarik ez dagoela pentsarazten du. Indarkeriaren erabilera "beste aukerarik ez dago" eta "besteek okerrago jokatzen dute" esanez justifikatzen da. Zailtasunen erdian dauden aukerak identifikatzeko ezintasuna du oinarrian.

3.3. Manikeismoa

"Biolentzia edo zerbait okerragoa" aukeretara murriztea dakar berekin. Arazoak alde aurreko dikotomia batera sinplifikatzen ditu, eta horrela kontzientziari jarraikiz hautatzeko arduraren eragozten du. Demagogia arriskutsua da: bidea zabaltzen die "denak balio du" moduko adierazpenei eta, gainera, aurkaria "etsai" bihurtzen du. Manikeismoa kontzientzia etikoan gutxi sakontzen denean zabaltzen da.

3.4. Sektarismoa

Giza eskubideei baino balio handiagoa ematen zaion ideia baten defentsa kolektibo eta zorrotzegia da. Bestea etiketa soil bihurtzen du. Gizatasuna galtzea ekartzen du, eta batzuetan are eragelagoa ere. Giza duintasunaren balio gorena behar bezala barneratuta ez edukitzean oinarritzen da.

Gizartearen eta hezkuntzaren ikuspuntutik, erradikalizazio biolentoaren prebentzioak zuzeneko lotura dauka bizikidetzaren apurtzen duten lau arrazoi horiei amaten zaien erantzunarekin.

4. Proposamen pedagogikoa

Proiektu honen proposamen pedagogikoak hiru ildo nagusi ditu: pedagogia bat, erreferentzia alternatibo bat eta pertenezia-sentimendu bat.

4.1. Gizalegez Akordioaren pedagogia

Erradikalizazio biolentoa gertatzen denean, prebentzioaren arloko erantzuna hezkuntza izan behar da: elkarrekin bizitzen eta denetariko herritarren artean integratzen irakastea. Bizikidetzaren balioetan hezi behar dira herritarrek, honako mezu hau oinarritzat hartuta: ez dago pertsonaren, giza eskubideen eta hauen oinarrian dagoen duintasunaren errespetua baino gauza garrantzitsuagorik.

Ondorengo lau puntuak aurreko atalean deskribatutako lau kontrabalioei ematen zaien hezkuntza-erantzuna dira. Gizalegez Akordioaren edukian sakontzen dute eta guztien artean partekatzen duten zerbait dute: pertsona bakoitzak hautatzeko ahalmena pertsonalizatzen laguntzen dute. Gizakion errealitate eta ahalmen hutsak direnak garatzen dituzte. Ez dute ezer berria ezagutzera ematen, pertsona bakoitzaren izatean badagoena ezagutarazten dute.

4.1.1. Izaera mugatuaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea norberaren ikuspegiari beti zerbait falta zaiola onartzea da. Ulertu behar dugu inork ez duela inoiz arrazoi osoa, inork ezin duela dena egin, eta ez dagoela modurik egia osoaren jabe izateko. Hezkuntzaren ikuspuntutik, errealitatearen ezinbesteko manu hori ulertuko badugu, gizakion mugak onartzeko heziketa-esperientzia bultzatu behar da. Esperientzia horrek dogmatismotik babesten gaitu eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.

4.1.2. Balio positibo etengabearen pedagogia

Elkarrekin bizitzea zailtasunen artean aukerei heltzen ikastea da. Horretarako funtsezkoa da balio positiboaren heziketa-esperientzia sustatzea. Esperientzia horri esker ikas daiteke beti daudela etsipena eta etikoak ez diren bideetara jotzea baino aukera hobek. Balio positiboaren heziketak fatalismoa eragozten du eta aniztasuna sustatzen du.

4.1.3. Kontzientzia etikoaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea da egoera guztietan norberaren ardura etikoari eustea. Horrek berekin dakar norberaren kontzientzia etikoan sakontzeko heziketa-esperientzia sustatzea. Ez gara dogmatismo, amorru, oldarkortasun, beldur eta norberekoikeria bulkada hutsak; aitzitik, hori baino gehiago gara, arrazoibideak baititugu eta zentzu etikoz hautatzeko gauza baikara. Kontzientzia etikoaren heziketa-esperientziak manikeismoa eragozten du eta elkartasuna sustatzen du.

4.1.4. Giza duintasunaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea da giza duintasunaren errespetua balio gorena dela ulertzea. Halaber, giza duintasunaren eta giza eskubideen heziketa-esperientzia sustatzea ere bada. Gizaki guztiok merezi dugu errespetua, eta denok dauzkagu eskubideak. Pertsonak etiketa eta norbanako murrizketa guztiak baino gehiago dira. Horren jakitun izatea erabakigarria da bizikidetzari zibilizatua lortzeko. Giza duintasunaren heziketa-esperientziak indarkeriara jotzea eragozten du eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Ikuspegi estrategikotik begiratuta eta etorkizunean gizarte integratu bat lortzeko, beharrezkoa da bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura sustatzea, aipatu berri ditugun balioen tankerakoak lantzen dituen pedagogia unibertsala barne hartzen duten gizartearen eta hezkuntzaren arloetako proiektuen bitartez. Hezkuntzaren aldeko apusturik gabe, bakearen eta bizikidetzaren aldeko kulturarik gabe, gizarterako eta kohesiorako politikarik gabe eta epe ertain eta luzerako balioetan inbertitu gabe zaila izango da bizikidetzari agertzen ari zaizkion erronkei erantzun strategiko eta globala ematea.

4.2. Erreferentzia alternatibo bat

Indarkeria sedukzio gisa aurkezten da. Erradikalizazioa esperientzia erakargarria da. Ezinbestekoa da harekin guztiz bateraezina den esperientzia alternatibo bat eskaintzea eta aurkeztea. Kontrapuntu sendo bat behar da, indarkeria aurrez aurre ukatuko duena eta urratsa itxiko duena. gizarte- eta heziketa-proiektu honetan elkartasunaren aldeko hautua egiten da. Elkartasuna esperientzia gisa –esperientzia gisa azpimarratu behar da–, pertsonaliza daitekeena eta zuzenean bizi daitekeena.

Elkartasunak lotura estua du enpatiarekin. Enpatia gizakiok daukagun gaitasuna da. Gizakiei elkartasunez jardutea ahalbidetzen dien gaitasuna da. Elkartasuna hautazko eta borondatezko erabakia da. Enpatiarako gaitasuna eta elkartasunerako konpromisoa giza ezaugarri espezifiko eta unibertsalak dira. Are gehiago, esan genezake enpatiak eta elkartasunak egiten gaituztela bereziki gizatiarrago.

Enpatia ez da soilik beste pertsona baten lekuan jartzeko gaitasuna. Zailtasun-, bidegabekeria- edo pairamen-egoeran dagoen beste pertsona batez kezkatzeko eta arduratzeko gaitasuna da. Kezka sentitzeko gaitasun hori jarduteko erabakian islatzen denean, enpatia elkartasun bihurtzen da.

Giza duintasuna bezala, enpatia ere, kontzeptu bat izateaz gain, lehen pertsonan bizi daitekeen esperientzia da, haren irismen unibertsala ulertzeko. Enpatia atzealdean esperientzia daiteke, bizitzak beste pertsona batzuen laguntza-premiaren aurrean jartzen gaituenean. Hurbileko pertsona batek pairatzen duen bidegabekeriagatik mina sentitzen dugunean ere bizi daiteke.

Enpatia kultura-, hezkuntza- eta dibulgazio-balio handiko esperientzia da, bizikidetzako, giza eskubi-deetako eta elkartasuneko proiektu ororen muinean dagoena. Elkartasunaren aldeko aukerak bestea eta besteak kontuan hartzen dituen bizikidetzakultura definitzen du. Bere buruaz haratago irekitzen den gizartea definitzen du, barrura eta kanpora begira elkartasuna izateko gai dena.

Enpatiarako gaitasuna beste pertsonengana, hurbil egon daitezkeenengana edo oso urrun egon daitezkeenengana hurbiltzeko sentsibilitatea lantzen duen hezkuntza batean hazten da. Enpatiarako eta elkartasunerako gaitasunak eragiten digu pertsona zibilizatuak izatea. Enpatiarik eta elkartasunik gabe, norberekoikeriaren bultzadek bakarrik menderatuko lukete mundua.

Maila globalean edo tokikoan, familia-eremuan edo mundu mailakoan bizikidetzak bidezkoagoa lortzeko oinarritzko orekak zerikusia du pertsonen, erakundeen eta herrialdeen ikuskera politikoa sustatzearekin. Izan ere, pertsona, erakunde eta herrialde horiek beren buruaz haratago zabaltzen dira, eta gai dira barruarekiko eta kanpoarekiko elkartasuna sustatzeko. Enpatia/elkartasuna binomioa funtsezko hezkuntza-edukia da munduaren errealtatea ulertzeko eta hura hobetzen laguntzeko.

Giza elkartasunaren zentzu unibertsala lehen pertsonan bizi izan denean, indarkeriaren prebentzioa giza bihotzean sortu da. Horixe da gizarte- eta hezkuntza-proiektu honen tesia. Kontrapisuaren balioa: enpatia eta elkartasunaren bizipena esperientziaz. Bizitzaren zentzua zabaltzen du. Aukera pertsonal berriak irekitzen ditu.

4.3. Pertinentzia-sentimendua

Gizakiak indarkeriak limurtzeko joera izan dezakegu, batez ere bizitzak eta gure biografiak kanpoan utzi gaituztenean, disgregazio, indarkeria, kanporatze, marjinazio eta bestelako bizi-istorioekin. Ezinbestekoa da komunitateko kide sentitzea. Norberarena den espazio bat, non norberaren burua identifikatzeko aukera ematen duen, jaso, aitortua eta seguru sentitzeko espazio bat.

Gizakiok pertinentzia-sentimendua garatu behar dugu. Familiakoa, adiskideena, kulturala, erlijiosoa, politikoa, kirolekoa... Beste pertsonengana batzuen arteko kidesuna bilatzen dugu, eta ez dugu utziko bakarrik ez gaudela sentitzen.

Erljioaurreko eta politikaurreko kide izatearen sentimendua eratu behar da. Komunitateko nortasuna eta kide sentitzea sustatu behar dugu. Kide garelako sentitzea. Proiektu sozio-hezitzaile honen bidez, kidesun-sentimendu partekatua sustatu nahi dugu. Talde bat osatzen dugu, etxe bat, giza esku-bideekiko atxikimendutik eta gure elkartasun-esperientziatik abiatuta. Konpromiso eta esperientzia horrek eramaten gaitu gu izatera.

Hirugarren zatia
Estrategia didaktikoa

Bigarren pilotajea

Uztartu Programaren bigarren pilotaje-fasean saioen kopurua handitzea proposatzen da, ordu bete-ko 5 saiotatik 10era, egin beharreko lanak jarraipena izan dezan. 2022ko urritik 2023ko ekainera, gutxi gorabehera, bi astean behin gutxienez saio bat egiteko aurreikuspenarekin. Gida didaktikoa bi zatitan banatzen da: lehenengo bost saioetarako lan-gidoia eta gainerako bost saioetarako lan-gidoia.

Hezkuntza-proiektu honen estrategia didaktikoa hiru helburu orokorretara bideratuta dago, eta hiru tresna nagusitan oinarritzen da: ikus-entzunezko materiala, bost spot eta film dokumental batez osatua; gida didaktikoa, bost saioko ziklo bakoitzerako; eta, azkenik, lan-plangintza.

5. Helburuak

Uztartu Programak lau helburu ditu, bi orokorrak eta bi espezifikoak. Edukiaren analisia eta esanahia dokumentu honen bigarren zatian azaldutako oinarri kontzeptualen esparruan interpretatu behar dira:

5.1. Helburu orokorrak

· Bizikidetzaren kultura sendotzen laguntzea, giza duintasunaren, elkartasunaren eta giza eskubideen errespetuaren eta sustapenaren pedagogian oinarrituta.

· Erljio-aurreko eta politika-aurreko kide izatearen sentimendua sustatzea, giza eskubideetan kohe-sio-ardatza izango duena.

5.2. Helburu espezifikoak

· Bost saioko lehen zikloan: esperientzia eta bizipen pertsonaleko tresnak eskaintzea, indarkeriaren edozein agerpenen erakargarritasuna arbuizatzeko.

· Bost saioko bigarren zikloan: programako lau tresnen erabilgarritasuna probatzea eta praktikatzea, bai egoera errealetan, bai fikziozko istorioak baloratzean.

6. Bost saioko lehen zikloaren gida didaktikoa

6.1. Ikus-entzunezko materiala

Lehen bost saioetan, benetako historia partekatzean datza gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektu hau. Film dokumental batean grabatutako istorio bat da, non protagonistak 16 gazte diren, elkar ezagutzen ez dutenak eta gizarte- eta hezkuntza-proiektu honen gaiari buruz hitz egingo dutenak.

Historia 11 minutuko bost kapitulutan egituratuta dago, eta filmak izenburu hau du: *“Herri honetako ekipora batzen gaituena”*. Dokumentalaren esparruan, 16 gazte horiek lau laguneko lau taldetan antolatuta daude. Talde horietako bakoitzak filmaren lehen lau kapituluetakoko bat izango du protagonista. Bosgarren kapitulua lau taldeetatik ateratako ondorioen laburpena da.

Dokumentalaren lehen lau kapituluek egitura bera dute. Lau gazteko talde bakoitzak 30 segundoko spot bat ikusten du, ondoren haren edukiari buruz hitz egiteko. Lau iragarki horietako bakoitzak Gizalegez Akordioaren lau puntuetakoko bati egiten dio erreferentzia.

Bosgarren iragarkiak aurreko lau iragarkietan irekita geratu diren galderei buruzko ondorio batzuk eskaintzen ditu. Bosgarren kapitulu honetako dokumentalak 16 parte-hartzaileek egindako hausnarketak bateratzen ditu.

Ikus-entzunezko material hau lehen bost saioak garatzeko oinarria da. Lehen saio hauen helburua da esperientzia eta bizipen pertsonalerako tresnak eskaintzea, indarkeria edozein modutan arbuizatzeko.

6.2. Lehen bost saioen gidoia

Bost iragarkiek eta bost kapituluko dokumentalak, erradikalizazio biolentoaren prozesuei buruzko hausnarketa kritikoa sustatzera bideratutako ikus-entzunezko baliabide batez gain, garatu behar denaren eredia jasotzen dute berez. Edukia edozein prestatzailek pertsona-talde batekin erabil dezakeen gida didaktikoa da. Dokumentalaren garapenak gizarte- eta hezkuntza-proiektu hau aplikatu daitekeen edozein testuingurutan piztu nahi den solasaldia deskribatzen du. Funtsean, lana gutxi gorabehera ordubeteko bost saio egitean datza, honako gidoi honekin:

6.2.1. Egin beharreko lanaren aurkezpena

Lehenik eta behin, ekimen hau edozein gizarte- eta hezkuntza-testuingurutan aplikatzeko oso aurkezpen sintetikoa eta oso sinplea behar da, hurrengoaren antzekoa. Bereziki beharrezkoa da lehenengo saioan, baina ez dago soberan beste saioetan gogoratzea:

-Hausnarketa-lan bat egingo dugu norbait indarkeria erabiltzera eraman dezaketen kausei buruz eta indarkeria prebenitzeko bitartekoei buruz. Lehenengo etapan, ordubeteko bost saiotan egingo dugu. Horietako bakoitzean, hamaika minutuko dokumental bat ikusiko dugu. Dokumentala ikusi ondoren, lau edo bost laguneko talde txikitik hitz egingo dugu haren edukari buruz. Lehen fase hori amaitu ondoren, beste bost saio biko bigarren etapa bat zabalduko dugu, beste baliabide eta jarduerak batzuekin.

6.2.2. Lehen lau saioen garapena

Aurkezpena egin ondoren, dokumentalaren dena delako kapitulu ikusiko dugu (adibidez, erreferentzia bat izate aldera, har dezagun lehenengo kapituluaren edukia).

Hortaz, ikusi dugu kapituluak, eta, orain, lau-bost laguneko taldetan, eztabaidari ekingo diogu. Fase honetan, eztabaida horrek hamar minutuko hiru zati izango ditu. Bideratzaile-lanak egiten dituen eskema hau erabil dezake eztabaida pizteko:

-10 minutuko lehen tartea. Spotean esaten den lehen baieztapena aztertzea eta iruzkintzea: *"Norbait hiltzera irits naiteke, sentitzen dudalako... ARRAZOI GUZTIA DAUKADALA"*.

- Zer esan nahi du esaldi horrek? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu idea horren inguruan?...

-10 minutuko bigarren tartea. Spotean esaten den bigarren baieztapena aztertzea eta iruzkintzea: *"Inor ez da egia osoaren jabe. Nire ikuspegiak beti osatugabeak dira"*.

- Zer esan nahi dute esaldi horiek? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu idea horren inguruan?...

-10 minutuko hirugarren tartea. Spotaren hirugarren zatia aztertzea eta iruzkinak egitea. *"Badago lotzen gaituen zerbait desberdintasun guztien gainetik..."*

- Bizi al gaitzke elkarrekin bakean? Diferentziak diferentzia, zerk batzen gaitu? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu ideia horren inguruan?...

-Laugarren tartea: talde handian solasaldia. Hiru tarte horiek talde txikietan garatu ondoren, lana talde handiko solasaldi batera bideratuko dugu, taldeetan landu dena bateratzeko. Entzundako eta hitz egindako guztia zer den galdetzeko eta adierazteko espazio bat ere bada, parte-hartzaileengan ikuspuntu pertsonaletik eragin handiena izan duena.

Eskema hori bera errepika daiteke bi, hiru eta lau saioetan. Talde txikietako elkarrizketarako abiapuntua beti izaten dira saio bakoitzari dagokion iragarkiaren hiru baieztapen nagusiak.

6.2.3. Bosgarren saioaren garapena

Bosgarren saioa hastearekin batera, azpimarra ezazue oraingo honetan saiatuko garela denok batera egiten gogoeta, ea ondoriorik taxutzen dugun. Aurkezpen hori egin ondoren, dokumentalaren bosgarren kapitulua ikusiko dugu.

Kapitulu hori ikusi ostean, eztabaidari ekin. Hasieran, lau-bost laguneko talde txikitan. Fase honetan, eztabaida horrek hamar minutuko hiru zati izango ditu. Bideratzaile-lanak egiten dituenak eskema hau erabil dezake eztabaida pizteko:

-10 minutuko lehen tartea. Talde txiki horietako kideei galdera hau egingo zaie, nahi badute erantzun dezaten:

- Saio hauetan guztietan, zerk eman dizu atentzioa gehien? Edo, zer iruditzen zaizu garrantzitsuena? Edo, zer iruditzen zaizu ikasi duzula?

-10 minutuko bigarren tartea. Spotaren lehen zatia aztertzea eta iruzkinak egitea: *Giza eskubideekiko konpromisoak batzen gaitu.*

- Esaldi horrek zer esan nahi duen, norekin identifikatu garen, zer entzun dugun dokumentalean puntu honi buruz bereziki interesgarria iruditu zaiguna, ideia horri zer ekarpen egin diezaiokegun... Baliteke parte-hartzaileetako batzuek giza eskubideak zer diren ez jakitea. Defizit hori giza eskubideak zer diren eta zer esan nahi duten modu sinplean azaltzeko aukera da.

-10 minutuko hirugarren tartea. Bigarren baieztapenaren analisia eta iruzkina: elkartasunaren esperientziak batzen gaitu.

- Zer esan nahi duen esaldi horrek, norekin identifikatu garen, zer entzun dugun dokumentalean bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horri buruz, zer ekarpen egin diezaiokegun ideia horri... Gerta daiteke parte-hartzaile batzuek "elkartasun-esperientzia" adierazpena behar bezala ez ulertzea. Horrelako bizipen bat zer den adibide zehatzen bidez azaltzeko aukera ematen du defizit horrek.

-Azken tartea. Talde txikietako elkarrizketa-fase horren ondoren, baterako elkarrizketa egingo dugu talde bakar batean.

- Zer ondorio ateratzen dituen bakoitzak, zerk bihurtzen gaituen talde berekoak.

Saioa amaitzeko, taldekide bakoitzak laburpen-esaldi bat idatz dezake post-it batean. Irakurri eta denon begietara dagoen horma batean itsasten du.

7. Bost saioko bigarren zikloaren gida didaktikoa

Lehenengo bost saioen zikloan landutakoa oinarri hartuta, programak bigarren zatia hasiko du, eta hamar saiora arte luza dezake saio-kopurua. Horien guztien zeharkako helburua aurreko saioetan azaldutako lau tresnek zentzua eta erabilgarritasuna izan dezaketen testuinguruak eta egoerak identifikatzea da.

7.1. Bigarren zikloko gakoak

·Bost saioko lehen zikloa lau tresna eskaintzera bideratu da. Tresna horiek, erreferentzia gisa, arazoak, gatazkak eta zailtasunak bideratzen lagun diezagukete, erradikalizazio edo indarkeria moduekin erraz lotu daitezkeen erantzun oldarkorretara jo gabe. Haren edukira hurbiltzeko, film bat eta bost spot erabili ditugu. Lau tresna horiek honako hauek dira: *izaera mugatuaren kontzientzia*, *balio positibo iraunkorra* identifikatzeko gaitasuna, *gure kontzientzia etikoari* galderak egiteko aukera eta uneoro *giza duintasunaren zentzua* gogoan izatea.

·Bost saioko bigarren zikloaren helburua lau tresna horiek egoera desberdinekin alderatzea da. Bost saio horietatik hirutan, tresna horiek taldeetan parte hartzen duten pertsonei eragin diezaieketen bizitza errealeko eta pertsonaleko arazoetan, gatazka publikoen analisisan edo amatei, proiektuei edo itxaropenei aurre egiteko moduan duten erabilgarritasuna aztertuko da. Saio bat tartekatuko da, baliabide pedagogiko gisa pelikula bat erabiliz. Azkenik, azken saioa ondorioak bateratzera bideratuko da.

·Bost saioko bigarren ziklo honen helburu gehigarri bat aplikazio praktikoei jarraipena ematea da. Esperientzia garatu den zentroko hezkuntza-arduradunek lau tresna horiek erabili ahal izatea lortu nahi da, maila kolektiboan zein pertsonalean gerta daitezkeen edozein arazo, zailtasun edo gatazka tratatzeko eta kudeatzeko baliabide gisa. Horrela, bost saioko bigarren ziklo honek eguneroko bizitzan sor daitezkeen arazoak aztertzeko eta tratatzeko egitura utzi nahi du ondare gisa. Programak 5 + 5 saio ditu, baina horrela luza liteke, erabilgarria eta beharrezkoa den neurrian, saio berrieekin.

7.1.1. Seigarren saioaren garapena: pertsonalki eragiten digun gatazka edo arazoa

Seigarren saioaren hasieran, orain arte egin ditugun lan-saioetan identifikatu ditugun lau tresnen errebaso txiki bat egingo dugu: 1. Gure izaera mugatua onartzea; 2. Gure bizitzan balioa duena sentitzea; 3. Geure buruari galderak egitea; eta 4. Giza duintasuna errespetatzea. Programa honetarako argitaratutako liburuxka erabil dezakegu oroitzapen-baliabide gisa: "Zailtasun guztietan laguntzen diguten lau tresna ditugu".

Sarrera hau egin ondoren, taldeko kideei minutu batzuk emango dizkiegu pertsonalki eragiten dien eta osatzen duten gatazka edo arazo bat azter dezaten. Zentroan sortutako arazo bat, bizikidetzaz-gatazka bat edo arazo pertsonal bat izan daiteke. Pertsona bakoitzak arazo hori bere buruarentzat azter dezala proposatuko dugu, lau ikuspegi hauetatik:

-10 minutuko lehen blokea. Arazo hori izaera mugatuaren ikuspegitik aztertzea gonbidatuko ditugu. Lehen tresna horren inguruko kontzeptu nagusiak gogoraziko ditugu, eta diapositiban edo kartel edo fotokopia batean proiektatuko ditugu.

•*Pertsona guztiok berdinarak gara eta mugatuak gara. Bizikidetzaz geure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea da. Horrek esan nahi du gizaki guzti-guztiek ez dugula arrazoi osoa, ezin dugula dena egin, eta ezin dugula egia osoa eduki.*

Pertsona bakoitzak denbora bat ematea mugaren ikuspegitik aukeratu duen gatazka edo arazoa begiratzera proposatuko dugu. Bloke honen amaieran, minutu batzuk gordeko ditugu nahi duenak bere aurkikuntzak taldearekin partekatu ahal izateko.

Inbasioaren hasierari buruzko lehen albisteak gertatu zirenetik, EAEko erakundeek eta hirugarren sektore sozialak gero eta lankidetzazko prozesu handiagoa hasi genuen, gerra hark zekarren drama humanitarioaren aurrean elkartasun eraginkorra artikulatzeko, eta, bereziki, lehenik eta behin, pertsona eta familia errefuxiatuen eta, aurrerago, harrerako euskal familien premiei erantzuteko. Otsailaren 24a baino astebete geroago, hiru mailatako elkarrizketa zegoen martxan: sailen artekoa, Eusko Jaurlaritzaren barruan; Eusko Jaurlaritzaren artekoa, foru-aldundiekin, EUDELekin, udalekin eta Espainiako Gobernuarekin; eta erakunde horien eta hirugarren sektore sozialaren artekoa.

2022ko martxoaren 3an, Europako Batzordeak argi berdea eman zion Kontseiluaren 2001eko uztailaren 20ko 2001/55/EE Zuzentarauaren aplikazioari. Zuzentaru horrek nazioarteko aldi baterako eta berehalako babes ematen die Ukrainatik lekualdatutako pertsonari, urtebetez, eta bi urtez luza daiteke. Babes horrek honako hauek dakartza berekin: bizileku- eta lan-baimena ematea, prestakuntza jasotzea, hezkuntzarako eskubidea; ostatu egokia edo hori lortzeko bitartekoak; gizarte-laguntzaren eta elikaduraren arloko beharrezko laguntza; eta arreta medikoa.

Euskadik, Eusko Jaurlaritzak, erakundeek, hirugarren sektore sozialeko entitateek eta euskal gizarteak hasiera-hasieratik adierazi zuten Ukrainatik datozen errefuxiatuak hartzen laguntzeko borondate esplizitua. Erabaki hori printzipio etikoetan eta elkartasun-printzipioetan oinarritzen da, bai eta gizarte zibilaren eta administrazio publikoen erantzukizun eta erantzunkidetasuneko printzipio arauemailetan ere.

Ikuspegi etikotik, Migrazioako Euskal Itun Sozialak, 2019ko azaroaren 30ean sinatu zenak, oso maila handiko adostasun sozialarekin, politikoarekin eta parlamentarioarekin, erreferentzia-esparru bat eskaintzen du. Dokumentu horrek dioenez, migrazioaren edo asiloaren arloan, printzipio etiko nagusia *jaso beharko genukeena eskaintzea* da, antzeko egoera batean egonez gero. Munduko edozein pertsonak bere lurra utzi behar izan dezake, indarra edo gerra dela medio. Gure aurrekoetako askori gertatu zitzaizen. Ikuspegi humanitario hori duintasunaren, elkartasunaren eta unibertsaltasunaren ikuspegiari oinarritzen da.

Erantzukizunaren eta erantzunkidetasunaren ikuspegitik, euskal erakundeok 2001/55/EE Zuzentaru betetzeko konpromisoa hartzen dugu, baita giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidearen betebeharrak ere. Estatuaren erantzuna osatzeaz gain, euskal administrazioen eskumena eta konpromisoa da errefuxiatuak integratzea eta hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuetara eta, oro har, gizarte-politika eta -laguntzetara iristea.

II. Jarraipen-mahaia eta Lehen Kontingentzia-plana

2022ko martxoaren 10ean, Iñigo Urkullu Lehendakariak Ukrainako errefuxiatuen harre-rarako Jarraipen-mahaia deitu zuen Lehendakaritzan. Bileran parte hartu zutenak honako hauek dira: Lehenengo Lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburu Josu Erkoreka, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburu Idoia Mendia, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabal, Hezkuntzako sailburu Jokin

Bildarratz, Osasuneko sailburu Gotzone Sagardui, bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiria, Etxebizitzako sailburuorde Pedro Jauregui, Arabako Diputatu nagusi Ramiro González, Bizkaiko Diputatu nagusi Unai Rementeria, Gipuzkoa-ko Diputatu nagusi Markel Olano eta EUDELekeko Presidente Gorka Urtaran, Denis Itxaso Gobernuaren ordezkaria; eta baita gizarte-erakunde hauetako ordezkariak: CEAR, Zehar Errefuxiatuekin, Gurutze Gorria, ACCEM, MPDL, Caritas eta Ellacuria Fundazioa.

Bilera hartan, Eusko Jaurlaritzak Lehen Kontingentzia-plana aurkeztu zuen, Ukrainako inbasioaren ondorioz lekualdatutako pertsonen harrera egiteko. Plan hori koordinatuta egin zen foru-aldundiekin, EUDELekekin eta gizarte-erakundeekin, betiere Estatuko Aldi Baterako Nazioarteko Harrera eta Babes Sistemarekiko (SAPIT) osagarritasun-irizpidearekin. Plan horren helburua zen Irun, Oñati, Tolosa eta Berrizko zentroetan dauden plazak urgentziazko lehen harrera baterako erabiltzea. Gainera, hoteletan ostatu hartzea aurreikusi zen, eta, bizitoki-irtenbide egonkorra emate aldera, aurreikuspen-lan bat hasi zen Aloka-biderekkin eta udalekin.

Aldi berean, herritarren elkartasuna bideratzeko posta elektronikoko helbide bat, informazio-telefono bat eta aurrez aurreko zerbitzu bat aktibatu ziren EAEko hiru hiriburuetan, Euskadira iristen ziren unetik ukrainiarrak hartzeko, informatzeko eta orientatzeko. Aurreikuspen zen, halaber, itzultzaile boluntarioen sare bat eta hasierako informazio- eta harrera-zerbitzu bat antolatzea aireportuetan, tren- eta autobus-geltokietan.

Planak zehazten zuen, beren eskumenen arabera, foru-aldundiek beharrezko arreta eskainiko zirela familia-erreferenterik gabeko adingabeei eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen, eta udaleko gizarte-zerbitzuek, bestalde, ohiko erreferente gisa jardungo zutela haiek gizarteratzeko.

III. Bigarren Kontingentzia-plana

Lehenengo Kontingentzia-plana premiazko erantzuna izan zen, oraindik oso mugatuak ziren informazio- eta aurreikuspen-testuinguru batean. Hiru asteko epean, datu gehiagorekin eta lehen harrera-esperientziak kontuan hartuta, lehen tresna hura egokitu eta bigarren plana prestatu zen.

Horrela, martxoaren 31n, Jarraipen-mahaiak Bigarren Kontingentzia-plana onartu zuen, Ukrainako inbasioaren ondorioz lekualdatutako pertsonak hartzeko. Lehen planean aurreikusitakoaz gain, bigarren plan horrek erroldatzeko eta udal-zerbitzuetan arreta emateko beharrezkoak ziren baliabideak ezartzen zituen, baita errefuxiatuek hezkuntzarako, osasun-zerbitzuetarako eta enplegu-zerbitzuetarako eskubidea erabat baliatzeko aukera bermatzeko ere.

Etxebizitzaren arloan, bi bizitoki-irtenbide mota handi aurreikuspen ziren: erakundeek eskainitako etxebizitzak edo eskaintza sozialekoak, eta harrera-familien etxebizitzak. Eskaintza instituzionalaren eta sozialaren kasuetan, jarraituko zen prozesua definitzen zuen planak. Horrez gain, laguntza psikosozialeko programa bat abian jartzea aurreikuspen zen, bai lekualdatutako pertsonentzat, bai Txernobileko bazterketa-eremutik hurbil dauden haurrak hartzen dituzten pertsona eta familientzat, bai elkarrekin bizi ziren harrerako familiak eta harreran jasotakoak. Beste baliabide osagarri batzuk ere definitu ziren, hala nola emakumeen eta adingabeen salerosketaren prebentzioa indartzea eta laguntzeko gaitasuna duten beste erakunde edo instituzio batzuekin koordinatzea.

Bizi-sostegurako laguntza ekonomikoari dagokionez, eta laguntza ekonomiko hori bermatzeko Estatuaren mekanismoa zehaztuta ez zegoen bitartean, Eusko Jaurlaritzak akordio bat egin zuen erakunde sozialen sare batekin eta Caritasekin, laguntza horiek behar zituzten pertsona eta familia errefuxiatuei bideratzeko eta helarazteko. Horretarako, Azken Sarea Indartzen programa hartu zen erreferentzia gisa. Programa hori ere Caritasekin eta pandemian zehar erakunde sozialen sare batekin lankidetzan garatu zen.

Gizartearen artikulazioari eta antolaketari dagokionez, planak boluntarioen tokiko taldeak sortzera bideratzen zuen, eta talde horiek udalerrri bakoitzean instalatutako familientzako erreferentzia-puntu gisa eskaintzen ziren. Proposamen horrek hiru helburu zituen: (1) le-kualdatutako pertsonen laguntza, konpainia eta giza beroa ematea, (2) hizkuntza ikasten laguntzea eta (3) beren bizitzako ingurune berria ezagutzen laguntzea, bai zerbitzuen, saltokien edo garraioen erabileran, bai aisialdirako, autonomiarako edo gizarte- eta lan-egokitzapenerako aukeren ezagutzan. Horrez gain, laguntza hori harrera-familietara zabaldu da, eta harrera-familiei ematen zaien laguntza partekatu da haien gizarteratzean.

Ekimen horrek erreferentzia gisa hartzen zuen errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko Babesletza Komunitarioaren ereduaren esperientzia, azken urteotan sustatu dutena Eusko Jaurlaritzak, Ellacuria Fundazioak eta Caritas elkarteak, Espainiako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenaren bidez.

Bi Kontingentzia-planek bi lehentasun izan zituzten: lehenik, hasierako edo larrialdiko harrera bermatzea; eta, bigarrenik, gizarte- eta komunitate-integratzearen prozesuak laguntzea eta indartzea. Harrezkero, eta urte honetan zehar, Ukrainako errefuxiatuen harrerarako Jarraipen-mahaia 20 aldiz bildu da. Gertakizunen bilakaerari egokitutako Kontingentzia-planetan ezarritako jarraibideek beren jarduera garatzeko esparru gisa balio izan dute.

IV. Isuri Funtsa eta bere bost programak

Apirilaren 8an, Eusko Legebiltzarrak Osoko Bilkura monografiko bat egin zuen Ukrainako egoerari buruz. Lehendakariak, besteak beste, Isuri Gizarte-larrialdietarako Funtsa iragarri zuen, bi ildotan egituratuta: batetik, egoera horrek Euskadin sektore ahulenetan duen eraginari aurre egiteko, eta, bestetik, pertsona eta familia errefuxiatuei eta harrera-familiei laguntzeko.

Bigarren ildo horretako neurriak aldi baterako babes-estatutua zuten errefuxiatu ukrainiarrei harrera egitera bideratu ziren. Isuri Funtsaren jarduera-ardatz hori bost programa osagarri hauen bidez hedatu zen:

- Lehen Harrerako Programa. Programa horren esparruan, Eusko Jaurlaritzak Estatuko Administrazio Nagusiaren esku jarri zituen Oñati, Tolosa, Irun eta Berrizko aldi baterako harrera-zentroak. Lurralde historiko bakoitzean telefono bat eta harrera-zentro bat gaitu ziren, Gurutze Gorriak kudeatuta, bai eta Zehar Errefuxiatuekin elkarteak kudeatutako helbide elektroniko bat ere, elkartasun-eskaintzak bideratzeko. Material sinpleak argitaratu ziren ukraineraz, ohiko galderen eta erantzunen dokumentuekin, bideoekin, karteekin, gida batekin eta 19 aldiz argitaratu den aldizkako informazio-buletin batekin. Aldi baterako babes-estatutua aitor zedila eskatzeko gaitutako Polizia Nazionaleko komisaria bakoitzean, itzul-tzaile bat jarri zen.
- Azken Sarea Indartzen-Ukraina Programa. Laguntza ekonomikoa emateko programa bat, 3.000.000 eurokoa, pertsona eta familia errefuxiatuei oinarrizko premiak estaldura emateko laguntzak aurreikusten zituena. Programak laguntza hori eskaini die Euskadira iritsi diren eta euskal familien etxeetan dauden 1.633 bizikidetz-unitateri, horietako batzuk ukrainar jatorrikoak.
- Loturak Programa. Programa horretan funtsezkoa da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen zeregina. Errefuxiatuak harremanetan jartzen ditu programak indartu edo sortzen dituen harrera komunitarioko tokiko sareekin. Tokiko harrera-sareak aktibatzen ditu babesletza komunitarioko eredu batetik. Aurrekontua 500.000 eurokoa da. Programa horri esker, 184 familia harreragilek eta 218 familia ukrainiarrek laguntza pertsonalizatua jaso dute.

- Berritze Programa. Arreta psikosozialeko programa, 500.000 eurokoa. EAeko etxeetan hartutako pertsona eta familia ukrainarrak zein harrera-familiak artatzen ditu. Azken horien artean sartzen dira Txernobileko haurrak hartzeko elkarteei lotutakoak; izan ere, kezka bereziki izan dute Ukraina Errusiak inbaditu izanak eragindako larritasun- eta inkomunikazio-egoera, Txernobileko bazterkeria-eremuaren ondoan. Berritze Programak balorazio psikologikoa egiten du eta aboradate terapeutiko egokiena planteatzen du, gerra-inpaktuak eragindako trauma osteko antsietate- eta estres-koadroei aurre egiteko, eta, gainera, kaltetutako pertsonen dolua egiteko prozesuan laguntzeko. Programa horri esker, 570 pertsonari laguntza eta arreta psikosoziala eskaini zaie.
- Aukerak Suspertzen Programa. Eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuko programa bat. Bere helburua da eten digitala ezabatzea eta gizartean desabantaila-egoeran dauden haurren, nerabeen eta familien gaitasunak indartzea ikaskuntza-jarduere-tarako, ikastetxetik kanpo. Ukrainatik datozen haurrek eta nerabeen integrazio akademikoa errazteko, Aukerak Suspertzen Programak 300.000 eurotan handitu du bere aurrekontua. Urte honetan zehar, 69 haur eta nerabe errefuxiatuek eta 29 familiariek parte hartu dute eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzu horretan.

Isuri Funtzaren bost programa horien diseinuan eta ezarpenean, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek zeregin erabakigarria izan dute. Ekarpen hori Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Ukrainako errefuxiatuen harrerarako Jarraipen-mahaiarekin lankidetzan eta koordinatuta egin da.

Jarraipen-mahai horretako kide iraunkorrak izan dira Gizarte Politiketako Sailburuorde-tza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia, Segurtasun Sailburuorde-tza, Hezkuntza Sailburuorde-tza, Etxebizitza Sailburuorde-tza, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Gobernuaren Ordezkaritza, CEAR, Zehar Errefuxiatuekin, Gurutze Gorria, ACCEM, Caritas eta Ellacuria Fundazioa.

V. Lankidetzaren sare bat

Urte honetan zehar, Euskadin lankidetzaren publiko-sozialeko sare zabal batek funtzionatu du, elkarrekin koordinatutako eragile instituzional eta sozial ugariarekin:

- Espainiako Gobernua arduratu da Aldi Baterako Nazioarteko Harrera eta Babes Sistemaren (SAPIT) erantzuna antolatzeaz, CEAR –Euskadin dituen plazetarako sarbidea koordinatzen duena–, Gurutze Gorria edo ACCEM bezalako erakundeen bidez. Era berean, Euskadin aldi baterako nazioarteko 4.180 babes-eskaera kudeatu ditu, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin itzulpen-zerbitzuetan.
- SAPITek, Eusko Jaurlaritzak Irunen, Oñatin, Tolosan eta Berrizen dituen lau zentroen laguntzarekin, 627 plaza eskaini ditu lehen harrerako zerbitzuan aldi baterako babes-estatutua duten pertsonentzat (apirilaren 20ko datua, serieko maximoa izan zena, eta pixkanaka 244 plazaraino jaitsi da 2023ko otsailean).
- Lehendakartzak Kontingentzia-planak egitea koordinatu zuen, bai eta Jarraipen-mahaia sortzea eta dinamizatzea ere. Sailen, erakundeen eta gizartearen erantzuna koordinatzen lagundu du, baita datu-buletinak kudeatzen ere.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Isuri Funtzeko bost programen diseinua eta kudeaketa koordinatu du, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareko hainbat erakunderekin lankidetzan, eta, gainera, erantzuna lehen egunetik koordinatu du, bai eta Jarraipen-mahaiaren koordinazioa eta dinamizazioa ere, Lehendakartzarekin batera. Bestalde, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mende dauden Irun, Tolosa, Oñati eta Berrizko zentroetan sortutako 325 plazetan 71 ukrainarri laguntzako arreta eskaini du Eusko Jaurlaritzak SAPITen.

- CEAREk, antzemandako beharrak Jarraipen-mahaira eramateaz gain, Euskadiko SAPITeko plazetarako sarbidea koordinatu du, eta horien zati bat zuzenean kudeatu ere. Ukrainatik etorritako 1.387 errefuxiatu artatu ditu guztira, CEAREk berak kudeatutako zentroetan.
- Gurutze Gorria SAPITeko plazen zati bat zuzenean kudeatu duen beste erakundee-tako bat da. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren hasierako harrera-zerbitzua ere artatu du, 945 222 222 telefonoaren eta hiru euskal hiriburuetak hiru harrera-zentroen bidez, eta 925 pertsonari eman die zerbitzua.
- ACCEM da SAPITeko plazen zati bat zuzenean kudeatu duen beste erakunde bat. 99 errefuxiatu zerbitzua eman die, eta hautemandako premien berri eman dio Jarraipen-mahaiari.
- Zehar Errefuxiatuekin erakundeak euskal herritarrengandik sortu diren boluntario-tza-ekimenak koordinatzeko eta antolatzeko ezarritako errefuxiatuak@euskadi.eus helbide elektronikoaren bidez jasotako mezuak kudeatu ditu. Oñatiko eta Tolosako zentroen kudeaketa bere ardurapean du.
- Caritasek Azken Sarea Indartzen programaren bizi-sostenguari laguntza ekonomiko emateko aktibatutako hirugarren sektore sozialeko erakundeen sarea eta programa koordinatu ditu, eta 2.929.509 euro banatu dizkie 1.633 bizikidetz-unitateri 2023ko otsailaren 24ra arte.
- Ellacuría Fundazioak, Caritasekin batera, pertsona eta familia errefuxiatuei eta harrera-familiei laguntzeko Loturak Programa koordinatzen du, eta herritarren boluntariora-eskaintzak aktibatu ditu, tokiko gizarte-laguntzako taldeak indartzeko edo abian jartzeko.
- Agintzari kooperatibak laguntza psikosozialeko Berritze Programa koordinatzen du, babes-estatutua duten 258 pertsonari eta 312 harreragileri lagunduz.
- Osakidetzak 1.214 DAST txartel (Aldi baterako Osasun Laguntzako Dokumentua) eta 1.887 OTI (Osasun-txartel indibiduala) banatu ditu, eta behar izan duenari osasun-arreta eskaini dio.
- Hezkuntza Sailak 1.027 matrikulazio egin ditu Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Batxilergoan (558 neska eta 469 mutil). Hizkuntza Eskola Ofizialetan eta Helduen Hezkuntza Zentroetan (HHI) 532 pertsona matrikulatu dira.
- Segurtasun Sailak bereziki lehen uneetan eskatu den guztian lagundu du, iritsieretan jarduteko protokolo bat prestatuz eta Ertzaintzari, Babes Zibilari eta Udaltzaingoei informazioa emanez. Itzulpen-zerbitzuak jarri ditu, baita ukrainarra ere, 112 telefonoan eta ertzain-etxeetan.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak laguntza eman du harrera kudeatu duten gizarte-erakundeei etxebizitzak eskainiz.
- Foru-aldundiek beren gain hartu dute familia-erreferenterik gabeko adingabeei eta egoera ahulean dauden pertsonari arreta ematearekin lotutako guztia, eta, horretarako, koordinazio-mahai bat sortu dute Familia eta Haurren Zuzendaritzarekin batera.
- Udalek erroldatze-erantzukizuna hartu dute beren gain, eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak eskaini dizkiete behar izan dituztenei.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Ukrainako krisi humanitarioari buruzko gune bat gaitu du bere webgunean, eta bilerak egin ditu GKEekin eta laguntza humanitarioko erakundeekin.

- Azkenik, Ukrainarekin lotutako hainbat elkarterekin izandako harreman estua nabarmendu behar da, elkarte horiek elkartasun-ekimen ugari bultzatu eta bideratu baitituzte, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan. Hauek dira, zehazki, elkarte horiek:
 - Ukraina-Euskadi Elkarteak sentsibilizazio-ekintzak egin ditu eta laguntza materiala bidali du Ukrainara, eta, erakundeekin duen harremanean, Ukrainako eta Euskadiko egoerarekin lotutako informazioa eta beharrak helarazi ditu, itzultzaileei sarbidea errazteaz gain.
 - SOS Ukraina Elkarteak errefuxiatuak lekualdatzea, familietan hartzea eta laguntzak, baliabideak eta enpleguak eskuratzea sustatu du. Erakundeekiko harremanetan, beharrak jakinarazi ditu eta harrera-familielikiko harremana eta Jaurlaritzak bultzatutako programekiko lotura erraztu ditu.
 - Chernobil Elkarteak, Chernobileko Umeak, Ukraina-Gaztea eta Chernobilen Lagunak. Txernobilgo haurrak hartzeko lau euskal elkarte horiek elkarteekin aldez aurretik loturak zituzten errefuxiatuak lekualdatzea eta familietan harrera egitea sustatu dute. Erakundeekiko harremanetan, premien berri eman dute, eta harrera-familielikiko harremana eta Jaurlaritzak bultzatutako programekiko lotura erraztu dute. Gainera, sentsibilizazio-ekintzetan eta Txernobilgo zentral nuklearraren bazterketa-eremuaren ondoan korridore humanitario bat eskatzeko lanetan lagundu dute.
 - GBGE Elkarteak (Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkarteak). Katowice-n (Polonia) iragaitzazko harrera-proiektu bat garatu du, frantziskotarrekin lankidetzan, Txernobilgo bazterketa-eremuaren aldameneko familiei zuzendua batez ere. Proiektu horrekin lankidetzan aritu dira aurreko lau erakundeak, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza izan du.
- Gainera, EAEko 1.500 familia inguruk, horietako asko ukrainarrak, hartu dituzte uneren batean etxean ukrainarrak diren pertsonak eta familiak. Horiekin batera, milaka pertsona edo familia anonimok lagundu diete Ukrainatik etorritako pertsona eta familia errefuxiatuei gizarteratze-prozesuan.

Azken gogoeta batzuk

- Zailtasun eta ziurgabetasun guztiak gorabehera, batez ere lehenengo asteetan, aurtengo elkartasun-esperientziak balorazio positiboa merezi du, erantzun humanitarioa eta komunitarioa emateko gaitasunagatik, premia izan duten pertsonen eta familiei eskainitako estaldurengatik eta memoria honek gaur aurkezten duen balantzeagatik.
- Edonola ere, balorazio on horrek soila eta diskretua izan behar du nahitaez, eta ez du inolako hiperbolik edo autokonplazentziarik izan behar: “Besterik gabe, egin behar zena egin da”. Bestalde, ez da ahaztu behar erantzun bat izan dela beren bizi-prozesuak hautsi zaizkien errefuxiatuen sufrimendu bidegabeari. Sufrimendu sakon horrek bere horretan dirau, elkartasuna gorabehera. Edozein baloraziok kontuan izan behar du errealitate hori.
- Autokritika eta etengabeko hobekuntza izan dira Jarraipen-mahaiaren ohiko funtzionamendu-irizpidea. Bilera bakoitzean, antolatzen ari ginen erantzunean aurkitzen genituen gabeziak eta hobetu beharreko alderdiak aztertu dira. Ezin zen bestela izan, gertakari ezezagun baten aurrean geundelako, bai intentsitate eta dimentsio kuantitatiboari dagokionez, bai aurreikuspenari eta denboran duen hedadurari dagokienez.
- Memoria honek islatzen duen balantze ona funtsezko arrazoi baten ondorio da: elkartasunak lankidetzaren sare gisa jardun du, errefuxiatuen harrerarako Jarraipen-mahaian ondo koordinatuta. Lankidetzaren sare horrek lan-metodologia sistematizatuarekin funtzionatu du. Metodo horrek esparru bat definitu zuen, bi Kontingentzia-planen bidez, eta bileren bidez lan-helburuen jarraipena egiteko eredu bat ezarri zuen, egoera ebaluatzeko datuen aldizkako buletin batekin osatzen dena.
- Lankidetzaren publiko-publikoa eta publiko-soziala oso positiboa izan da. Modu deszentralizatuan eta lankidetzan, hobeto erantzun ahal izan diegu EBn zehar joan-etorri askeak egin ditzaketen pertsonen eta familien beharrei; izan ere, askotan, beren senideekin edo alde aurreko loturak dituzten pertsonekin elkartzea bilatzen dute.
- Jarraipen-mahaiaren inguruan sortutako lankidetzaren espazioa oso emankorra izan da instituzioen eta gizarte-erakundearen artean, bai SAPITi lotutakoekin –Gurutze Gorria, CEAR edo ACCEM–, bai Zehar Errefuxiatuekin, Caritasekin eta Ellacuría Fundazioarekin, zeinak Agintzari sarearekin batera bultzatu baitituzte Isuri Funtsaren programak.
- Lankidetzaren sare horri esker, horrelako egoerei emandako erantzunak egokitu eta hobetu ahal izan ditugu, Eusko Jaurlaritzak SAPITen estatu-sistemak dituen baliabideak eta programak osatuz.
- Ibilbide horretan oso harreman hurbila eta positiboa izan da ukrainarren elkarteekin edo Ukrainarekin loturak dituzten pertsonen osatutako elkarteekin, bai eta Txernobilgo haurrak hartzeko lau elkarteekin ere, premiak hautemateko, haiekin batera erantzunak eraikitzeko eta bizi duten egoera benetan zailean laguntzeko.
- Euskadik, euskal instituzioek eta Hirugarren Sektore Sozialerako erakundeek giza duintasunaren neurriari harrera egiteko ahalegina egin dugu. Lankidetzaren aritzeko borondatea eta konpromiso etikoa lehenesteko erabakia faktore erabakigarriak izan dira aurtengo ibilbidea azaltzeko. Agindu etikoak arau-indarra izan du. Humanitatearen eta gizatasunaren ikuspegiak izan du lehentasuna.

2022ko otsailaren 24an inbasioa hasi ondorengo **mugarri nagusiak**

Martxoaren 1a. Asilo- eta babes-mahai interinstituzionalerako deialdia egiten da. Beatriz Artolazabal sailburua da mahaiburua, eta Marian Elorza Kanpo Harremanetarako zuzendaria ere bertan da. EAEko administrazioek eta hirugarren sektore sozialek egoera partekatzen dute.

Martxoaren 1a. errefuxiatuak@euskadi.eus iragarri da, tokiko administrazioen eta pertsonen eskaintza solidarioak bideratzeko. 945 222 222 telefonoa gaitu da, Euskal Autonomia Erkidegora iristen hasi diren edo bertan bizi diren pertsona eta familia ukrainiarrei arreta emateko.

Martxoaren 5a. Hiriburu bakoitzean harrera- eta arreta-zentro bat gaitu da, iristean informazioa eta orientazioa emateko.

Martxoaren 10a. Lan-mahai bat egin da, Lehendakaria buru dela. Bertan, Euskadiko I. Kontingentzia-plana aurkeztu da, *Ukrainako inbasioaren ondorioz lekualdatutako pertsonak hartzeko*.

Martxoaren 16a. Prentsaurreko bat egin da Txernobilgo haurrak hartzeko lau euskal elkarrekin, Ukrainako egoerari eta elkartasun antolatuen beharrari buruz. Aldi berean, diskrezioz lan egiten da korridore humanitario bat irekitzeko eskatzeko.

Martxoaren 17a. Jarraipen-mahaiaren bilera, Ukrainako inbasioaren ondorioz lekualdatutako pertsonak hartzeko. Urte honetan zehar, 20 bilera egin dira, eta lehenengo hilabetetan asterokoak izan ziren.

Martxoaren 21a. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak kontratatutako itzultzaile bat jartzen da hiriburuetako Polizia Nazionalaren hiru bulegoetako bakoitzean, nazioarteko babes-eskaerak izapidetzen laguntzeko.

Martxoaren 23a. Ukraineraz kartelak banatzen dira aireportuetan, geltokietan eta beste gune estrategiko batzuetan, 945 222 222 telefonoarekin eta hiru hiriburuetako zentroen helbidearekin.

Martxoaren 31. Jarraipen-mahaiaren hirugarren bileran, II. Kontingentzia-plana aurkeztu da.

Apirilaren 7a. Ukrainako errefuxiatuen harrerarako jarraipen-mahaiaren bilera. Gobernuaren Ordezkaritzak azaldu du, alde batetik, zailtasunak daudela hiru ertzain-etxeetan Aldi Baterako Babesa eskatzeko hitzorduak kudeatzeko, eta, bestetik, zer baliabide dauden maiatzaren erdialdean ilarak desagertzeko.

Apirilaren 8a. Ukrainaren egoerari buruzko osoko bilkura monografiko bat egin da Eusko Legebiltzarrean. Lehendakariak gizarte-erreskaterako funts bat iragarri du, 15,1 milioi eurokoa. Funtsak ildo bat du Ukrainako inbasioak Euskadin duen eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko, eta beste bat aldi baterako babes-estatutua duten pertsona eta familiei laguntzeko, 5,8 milioi euro, bost programatan: Lehen Harrerako Programa, Azken Sarea Indartzen, Aukerak Suspertzen, Loturak eta Berritze.

Apirilaren 14a. Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak argitaratutako "Ukrainatik lekualdatutako pertsonentzako harrera-gida" dokumentua eguneratzea.

Maiatzaren 2a. Familietan hartutako pertsonentzako dirulaguntzen Azken Sarea Indartzen programa aktibatuta da, 3 milioi euroko aurrekontuarekin. 300.000 euroko aurrekontuarekin, eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuko Aukerak Suspertzen Programa egokitu da, haur eta nerabe ukrainiarrak barne hartuta.

Maiatzaren 26a. Eusko Jaurlaritzak akordio-proposamen bat bidali dio Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioari, Jarraipen-mahaiak babestuta, erantzuna hobetzeko Ukrainatik aldi baterako babes-estatutua duten pertsonen ostatu-eskubideari dagozkionez, 2001/55/EE Zuzentarauaren 13. artikulua aitortzen duen bezala.

Ekainaren 1a. Loturak Programa jarri da abian, tokiko komunitateetan harrera egiteko eta integratzeko, bai eta Berritze Programa ere, ukrainiar pertsonen eta familiei laguntza psikosoziala emateko eta harrera egiteko. Bakoitzak 500.000 euroko zuzkidura du.

Uztailaren 26a. Eusko Jaurlaritzak GLLak eta gizarte-erakundeentzako dirulaguntzak gehitzea onartu du, Ukrainako gerrak eragindako krisiaren ondorioak arintzeko.

Abuztuaren 24a. Inbasioaren sei hilabeteak direla-eta, Lehendakaria buru duen Jarraipen-mahaiaren bilera bat egin da, eta Ukrainari lotutako erakundeekin ekitaldi bat ere bai.

Irailaren 29a. Ukrainako errefuxiatuen harrerarako Jarraipen-mahaiaren bilera. CEAREk egiaztatu du iritsiera-kopuruak behera egin duela, nahiz eta iristen direnek kalteberatasun handiagoekin egiten duten. ACCEMek jakinarazi du larrialdietako plazak aldi baterako harrera-plaza bihurtu dituztela, eta, beraz, ohiko prozedurara igaro direla.

Urriaren 27a. Ukrainako errefuxiatuen harrerarako Jarraipen-mahaiaren bilera. Gurutze Gorriak nabarmendu du moteldu egin direla Ukrainarako itzulkinak; izan ere, itzuli nahi dutenek atzeratu egiten dute beren erabakia hornidurarik ezari buruzko informazioen aurrean, elikagaien hornidura eta neguari begira berokuntza-zailtasunak barne.

Abenduaren 15a. Ukrainako errefuxiatuen harrerarako Jarraipen-mahaiaren bilera. CEAR, ACCEM eta Zehar Errefuxiatuekin erakundeek baieztatu dute egonkortasunari eusten zaiola, eta iritsiera-datuetan beheranzko joera dagoela. Egoera horrek aukera ematen du errutina normalizatuagoekin lan egiteko, gutxienez duela hilabete batzuetako salbuespenetik urrun.

2023ko urtarrilaren 1a. Harrera-sistematik kanpo dauden ukrainar jatorriko biztanleei zuzendutako banakako laguntzak abian jartzeko prozedura artikulatzen da, Ministerioak argitaratutako Errege Dekretuak ezartzen duena eta Ministerioak finantzatzen duena.

2023ko otsailaren 24a. Jarraipen-mahaiaren 20. bilera egin da, Lehendakaria buru dela. Eusko Jaurlaritzak, bilkura honetan, "Ukraina-Euskadi: urtebeteko elkartasunaren memoria" dokumentua aurkeztu du. Mahaiaren bileraren ondoren, Lehendakaritzan Euskadiren eta Ukrainaren arteko elkartasuna aitortzeko ekitaldia egin da.

Datuen laburpena

NAZIOARTEKO BABESA	
Euskadin 2001/55/EE Zuzentarauaren 13. artikulua aitortzen duen aldi baterako babes-estatutua eskatu duten pertsonak	4.180
Azken 12 hilabeteetan SAPIT Nazioarteko eta Aldi Baterako Babeserako Estatuko Harrera Sistemari plaza bete duten pertsonak	1.488
2023ko otsailaren 24an lehen harrerako zerbitzuan (SAPIT) plaza betetzen duten pertsonak	244
OSASUN- ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUAK	
Osakidetzan DAST osasun-txartela eskatu duten pertsonak	1.214
Osakidetzan OTI osasun-txartela eskatu duten pertsonak	1.887
Euskadiko ikastetxeetan matrikulatzeko eskatu duten adingabeak	1.027
Euskadin beste irakaskuntza batzuetan matrikulatzea eskatu duten pertsonak (Hizkuntza Eskola Ofizialak eta Helduen Hezkuntzako Zentroak-HHI).	532
ESKAERA FUNTSAREN PROGRAMAK	
Lehen harrerako programa: hasierako informazioa eta orientazioa	
Eusko Jaurlaritzako Irun, Tolosa, Oñati eta Berrizko zentroetan plaza bete duten pertsonak, SAPITek eskaintzen dituen plazen lehen harreraren osagarri	71
Gurutze Gorriak lagundutako Eusko Jaurlaritzaren hasierako harrera- eta orientazio-zerbitzuan artatu diren pertsonak	925
Zehar Errefuxiatuekin erakundeak artatutako elkartasun-eskaintzako mezu elektronikoen kopurua	3.652
Azken Sarea Indartzen programa: jasotako eta izapidetutako dirulaguntzak	
Jasotako eta izapidetutako eskariak	1.690
Laguntza jaso duten bizikidetz-unitateak	1.633
Emandako zenbateko globala	2.929.509 euro
Loturak programa: tokiko harrera-taldeak (babesletza komunitarioa)	
Lagundutako 184 familia-harrera	423 pertsona
16 tokiko harrera-talde	127 pertsona
218 lagundutako familia ukrainiar	453 pertsona
29 prestakuntza eta topaketa familia harreragileekin	321 pertsona
24 prestakuntza eta topaketa hartutako familiekin	317 pertsona
Bilerak elkarrekin (52) eta tokiko eragileekin	212 bilera
Berritze programa: laguntza psikosoziala	
Laguntza eta arreta psikosoziala jaso duten pertsonak	570
Aukerak Suspertzen programa: eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzua	
Parte hartu duten haur eta nerabe errefuxiatuak	69
Parte hartu duten familiak	29
FAMILIETAN HARRERA	
Etxean uneren batean pertsona eta familia ukrainiarrak hartu dituzten EAEko familien –horietako asko ukrainarrak– zenbatespena	1.500
Uneren batean EAEko familietan –horietako asko ukrainarrak– hartutako Ukrainako errefuxiatuen zenbatespena	3.500

Urtebeteko harreraren balantzea zifretan

• I. Eusko Jaurlaritzaren hasierako harrera- eta orientazio-zerbitzuan Gurutze Gorriak artatutako pertsonak.

Apirilak 20	678
Apirilak 26	749
Maiatzak 5	769
Maiatzak 12	791
Maiatzak 19	819
Maiatzak 26	829
Ekainak 2	837
Ekainak 9	855
Ekainak 16	855
Ekainak 23	866
Ekainak 30	867
Uztailak 7	869
Uztailak 14	870
Uztailak 21	876
Uztailak 28	878
Irailak 29	901
Urriak 27	906
Abenduak 15	916
Otsailak 24	925

• II. Lehen harrerako zerbitzuan plaza duten pertsonak (Aldi Baterako Nazioarteko Harrera eta Babes **Sistemaren barruan**).

Apirilak 20	627
Apirilak 26	601
Maiatzak 5	625
Maiatzak 12	618
Maiatzak 19	581
Maiatzak 26	447
Ekainak 2	434
Ekainak 9	439
Ekainak 16	432
Ekainak 23	414
Ekainak 30	390
Uztailak 7	386
Uztailak 14	395
Uztailak 21	398

Uztailak 28	381
Irailak 29	298
Urriak 27	279
Abenduak 15	239
Otsailak 24	244

• III. Euskadin aldi baterako nazioarteko babesa eskatu duten pertsonak.

Apirilak 20	1.800
Apirilak 26	2.039
Maiatzak 5	2.434
Maiatzak 12	2.646
Maiatzak 19	2.832
Maiatzak 26	3.060
Ekainak 2	3.219
Ekainak 9	3.309
Ekainak 16	3.382
Ekainak 23	3.421
Ekainak 30	3.435
Uztailak 7	3.475
Uztailak 14	3.504
Uztailak 21	3.545
Uztailak 28	3.587
Irailak 29	3.866
Urriak 27	3.914
Abenduak 15	4.046
Otsailak 24	4.180

• IV. Osakidetzan Aldi Baterako Osasun Laguntzarako Dokumentua eskatu duten pertsonak.

Apirilak 20	1.130
Apirilak 26	1.243
Maiatzak 5	1.367
Maiatzak 12	1.442
Maiatzak 19	1.513
Maiatzak 26	1.548
Ekainak 2	1.557
Ekainak 9	1.564
Ekainak 16	1.557
Ekainak 23	1.545
Ekainak 30	1.529
Uztailak 7	1.526
Uztailak 14	1.521

Uztailak 21	1.516
Uztailak 28	1.518
Irailak 29	1.445
Urriak 27	1.364
Abenduak 15	1.283
Otsailak 24	1.214

• V. Osakidetzan Osasun-txartel indibiduala (OTI) eskatu duten pertsonak.

Apirilak 20	321
Apirilak 26	404
Maiatzak 5	555
Maiatzak 12	665
Maiatzak 19	763
Maiatzak 26	840
Ekainak 2	910
Ekainak 9	972
Ekainak 16	1.053
Ekainak 23	1.106
Ekainak 30	1.138
Uztailak 7	1.152
Uztailak 14	1.194
Uztailak 21	1.223
Uztailak 28	1.245
Irailak 29	1.488
Urriak 27	1.584
Abenduak 15	1.738
Otsailak 24	1.887

• VI. Euskadiko ikastetxeetan matrikulatzea eskatu duten adingabeak.

Apirilak 20	422
Maiatzak 5	578
Maiatzak 12	689
Maiatzak 19	724
Maiatzak 26	748
Ekainak 2	768
Ekainak 9	769
Ekainak 16	769
Irailak 29	946
Urriak 27	962
Abenduak 15	982
Otsailak 24	1.027

• VII. Euskadiko beste irakaskuntza batzuetan matrikulatzea eskatu duten pertsonak (Hizkuntza Eskola Ofizialak eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak (HHE)).

Maiatzak 19	400
Maiatzak 26	416
Ekainak 2	411
Ekainak 9	411
Ekainak 16	411
Irailak 29	427
Urriak 27	411
Abenduak 15	449
Otsailak 24	532

• VIII. Jasotako eta izapidetutako laguntza ekonomikoak.
Azken Sarea Indartzen-Ukraina Programa.

	Jasotako eta izapidetutako eskariak	Laguntza jaso duten bizikidetzak-unitateak	Entregatutako zenbateko osoa (eurotan)
Ekainak 2	660	409	246.463,00
Ekainak 9	667	582	428.958,12
Ekainak 16	771	703	532.710,45
Ekainak 23	900	778	684.646,27
Ekainak 30	904	828	853.138,67
Uztailak 7	914	842	940.538,93
Uztailak 14	915	868	1.069.318,93
Uztailak 21	915	877	1.196.826,81
Uztailak 28	942	903	1.232.113,81
Irailak 29	1.001	952	1.722.205,54
Urriak 27	1.098	1.049	2.072.933,24
Abenduak 15	1.179	1.123	2.479.773,87
Otsailak 24	1.690	1.633	2.929.509,00

• IX. Bideratutako laguntzak/jarduerak.
Loturak Programa.

		Artatutako kasu-kopurua	Artatutako pertsona-kopurua
Ekainak 23	Harrera-familiak	98	229
	Tokiko taldeak	10	43
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	121	277
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	7	62
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	2	16
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	18 elkarte	56 bilera
Ekainak 30	Harrera-familiak	98	229
	Tokiko taldeak	11	43
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	121	277
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	8	128
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	2	16
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	18 elkarte	67 bilera
Uztailak 7	Harrera-familiak	106	246
	Tokiko taldeak	19	43
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	130	288
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	8	128
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	2	16
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	19 elkarte	75 bilera
Uztailak 14	Harrera-familiak	110	257
	Tokiko taldeak	19	43
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	136	299
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	8	141
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	2	16
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	21 elkarte	87 bilera

		Artatutako kasu-kopurua	Artatutako pertsona-kopurua
Uztailak 21	Harrera-familiak	122	276
	Tokiko taldeak	20	47
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	149	318
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	12	151
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	4	37
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	24 elkarte	97 bilera
Uztailak 28	Harrera-familiak	128	291
	Tokiko taldeak	23	62
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	156	333
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	15	204
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	4	37
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	26 elkarte	104 bilera
Irailak 29	Harrera-familiak	159	361
	Tokiko taldeak	16	102
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	183	382
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	19	238
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	34	183
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	30 elkarte	150 bilera
Urriak 27	Harrera-familiak	172	401
	Tokiko taldeak	17	110
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	201	422
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	23	268
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	35	192
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	37 elkarte	163 bilera

		Artatutako kasu-kopurua	Artatutako pertsona-kopurua
Abenduak 15	Harrera-familiak	178	411
	Tokiko taldeak	17	117
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	212	432
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	28	310
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	20	278
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	41 elkarte	195 bilera
Otsailak 24	Harrera-familiak	184	423
	Tokiko taldeak	16	127
	Lagundutako familia ukrainarrak guztira	218	453
	Prestakuntzak eta topaketak harrera-familiekin	29	321
	Prestakuntzak eta topaketak harreran dauden familiekin	24	317
	Bilerak beste elkarte eta tokiko eragileekin	52 elkarte	212 bilera

• X. Laguntza eta arreta psikosoziala jaso duten pertsonak.
Berritze Programa.

Ekainak 9	165
Ekainak 16	199
Ekainak 23	238
Ekainak 30	302
Uztailak 7	374
Uztailak 14	416
Uztailak 21	427
Uztailak 28	450
Irailak 29	527
Urriak 27	546
Abenduak 15	570
Otsailak 24	570

Oharren eranskina

Beste dokumentu
interesgarri batzuetarako
estekak

·Erradikalizazio biolentoaren prebentziorako gizarte- eta heziketa-programa Uztartu. Herri hone-tako ekipora batzen gaituena

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/uztartu_transicionsocial/eu_def/adjuntos/Uztartu-eus.pdf

·Uztartu Programaren bideoak

https://www.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/uztartu_transicionsocial_media/eu_def/media/spo-tak_eus.mp4

·Uztartu Programaren dokumentala

https://www.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/uztartu_transicionsocial_media/eu_def/media/doku-mentala.mp4

·"Komunitate musulmana Euskadin" dokumentala

<https://youtu.be/JV9sWWBjjL4>

·Euskadiko meskiten mapa eta direktorioa

<https://emd-euskadiko-meskiten-direktorioa.netlify.app/>

·COVID-19rako txertoen patenteak aldi baterako etetearen aldeko euskal adierazpena

https://bideoak2.euskadi.eus/2021/05/25/news_69297/DECLARACION_SUSPENSION_TEMPORAL.pdf

·Euskadiko Bigarren Kontingentzia Plana Ukrainaren inbasioagatik lekualdatutako pertsonak hartzeko. (2022ko apirila)

https://bideoak2.euskadi.eus/2022/03/31/news_76298/Bigarren_Kontingentzia_Plana_Errefuxiatuak_Ukrai-na.pdf

·Euskadiko Lehen Kontingentzia Plana Ukrainaren inbasioagatik lekualdatutako pertsonak hartzeko. (2022ko martxoa)

https://bideoak2.euskadi.eus/2022/03/10/news_75656/Kontingentzia_plana_Errefuxiatuak_Ukraina_eus.pdf

·Ukrainako gerra. Euskadiko gazteen iritzi inkesta

https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/txostenak/eu_def/adjuntos/iritzi_inkesta_ukraina_e.pdf

